

hh  
hik hasi

Francesc Imbernóni elkarrizketa  
Inklusioa ardatz  
Matematika, modu dibertigarrian  
Jolasa gizarte eraldaketarako  
Moda-eredua eta gazteak  
Barretartia Umore Zerbitzuak  
Aritz Mendiola



ASKOTARIKO ADIMENAK

# HAURRENTZAKO IRAKURGAIAK



## GREGORIO KATARRINO

Juan Cruz Igerabide + Eider Eibar

Fantasiaraz betetako ipuin argi eta dibertigarri honek bidaiari zoragarri batean murgituta eta errealitatea susmopean jartzera gonbidatzen ditu irakurleak.



## ITSASADARREKO KONTUAK

Paddy Rekalde + Jokin Mitxelena

Abenturak bizitzea maite duten irakurleentzat ipuin bizi eta dibertigarria.

haurrak

elkar

[www.elkarargitaletxea.eus](http://www.elkarargitaletxea.eus)

# AURKIBIDEA

GAIA / 10

## ASKOTARIKO ADIMENAK

1983an aurkeztu zuen Howard Gardner psikologoak eta AEBetako Harvard Unibertsitateko irakasle eta ikertzaileak askotariko adimenen teoria. Haren arabera, pertsona guztiek zortzi adimen mota dituzte gutxienez, eta edonor da adimentsua batean ez bada bestean. Teoria horretan oinarrituz ari dira lanean Tolosako Herrikide ikastetxean eta Bilboko Jesuitinetan, aldizkari honetan irakur daitekeen legez.

ELKARRIZKETA / 18

## FRANCESC IMBERNON

Irakasleen egiteko zail baina atseginaz mintzatu zen Francesc Imbernón Ikastolen Elkartek martxoan antolatutako jardunaldi pedagogikoetan. XXI. mendeko erronka berriak ezin direnez soluzio zaharrekin konpondu, eskola berritzaileko gakoak proposatzen ditu: irakasleria ahaldundua eta elkarlanean aritzen dena, oraingo egiturak puskatzen dituen eskola eta komunitatearekin bat egiten duena.

**Argitaratzailea:** XANGORIN KOOP. ELK. TXIKIA Errekalde hiribidea, 59. Aguila eraikina, 1. solairua. 20018 DONOSTIA GIPUZKOA. Tel: 943/ 371 408 ; www.hikhasi.eus; Posta Elektronikoa: hikhasi@hikhasi.eus; Lege Gordailua: SS-1001/95. ISSN: 1135-4690.

**Erredakzioa:** Joxe Mari Auzmendi, Ainhoa Azpirotz, Ainara Gorostizu, Amaia Mendizabal eta Arantzasu Muñoz.

**Erredakzio batzordea:** Kontxi Aizarna, Izarne Garmendia, Aritz Larreta, Josi Oiarbide, Eider Palmou, Leire Saez, Maite Saenz, Xabier Sarasua, Josu Txapartegi, Alazne Ugartetxea, Arantxa Urbe eta Angel Usobiaga.

**Aholkulariak:** Ane Ablanedo, Nerea Agirre, Nerea Alzola, Abel Ariznabarreta, Alex Barandiaran, Alvaro Beñaran, Begoña Bilbao, Mariam Bilbatua, Aines Dufau, Lore Errion-

do, Gurutze Ezkurdia, Idoia Fernandez, Joxe Garmendia, Alfredo Hoyuelos, Xabier Isasi, Juanjo Kintela, Irene Lopez-Goñi, Nerea Mendizabal, Karmele Perez Urraza, Matilde Sainz, Nora Salbotx, eta Xabier Tapia.

**Administrazioa:** Uxue Ugartemendia.

**Diseinua:** Grafik.

**Maketazioa:** Xangorin.

**Inprimategia:** ANTZA S.A.L. Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Sailak onetsia (2018-04-27).

**Kopurua:** 3.200 ale.

Hik Hasiko artikuluek edonon eta edonoiz balia zaitezke. Kasu horietan iturria aipatzea eskertuko genizuke. Hik Hasik ez ditu bere gain hartzen bertan plazaratutako iritziak ezta bat etorri ere derrigorki haiekin.

5 EDITORIALA

Erronka berriak ezin dira soluzio zaharrekin konpondu

6 ALBISTEAK

10 GAI NAGUSIA

Askotariko adimenak

18 ELKARRIZKETA

FRANCESC IMBERNON

“Isolatutako irakasleak ez du funtzionatzen. Talde-lana nahitaezkoa da. Hil da irakaslea; gora irakasle-taldea!”

26 EKARPENAK 1

Gaixotasun arraroak dituzten ikasleen inklusioa ardatz

28 EKARPENAK 2

Matematika irakasteko modu dibertigarri bat

32 EKARPENAK 3

Zer-nolako erabilera du jolasak gizartearen eraldatzeko?

36 GALDEIDAZU

MADDALEN ADURIZ

Nola eragiten du egungo moda-ereduak gazteengan?

39 ARGITALPENAK

40 PROPOSAMENA

Barretartia Umore Zerbitzuak

42 ATZEKO ATETIK

Aritz Mendiola

EUSKO JAURLARITZA



GOBIERNO VASCO

HEZKUNTZA, HIZKUNTZA POLITIKA  
ETA KULTURA SAILA

DEPARTAMENTO DE EDUCACIÓN,  
POLÍTICA LINGÜÍSTICA Y CULTURA



Gipuzkoako Foru Aldundia



# Erronka berriak ezin dira soluzio zaharrekin konpondu

## editoriala

HEZKUNTZA BERRIKUNTZAK BI ALDAKETA NAGUSI ESKATZEN DITU: IRAKASLEAK AHALDUNTZEA ETA TALDEAN LAN EGITEA; ESKOLAKO EGITURA PUSKATZEA; ETA KOMUNITATEAREKIN BAT EGITEA

Zer eskatzen digu XXI. mendeko hezkuntzak? Zer eskatzen digute eskoletako mahaietan eserita dauden neska-mutilek? Aldaketa. Erronka berriak ezin dira soluzio zaharrekin konpondu. Einsteinek hala zioen: “Eromena da gauza berberak egiten jarraitu eta emaitza desberdinak espero izatea”. Gaur egun bada gauza berberak eginez emaitza desberdinak lortuko dituela pentsatzen duen jendea. Eta Einsteinek arrazoi zuen, ez da egia.

Horregatik, aldaketa behar dugu. Eta, gainera, gero eta garbiago dago aldaketaren fokua non dagoen: irakasleengan eta ikastetxearengan. Fratok badu Ilustrazio garaiko eskola deskribatzen duen irudi bat: fabrikarena (Fratoren komikiak ikusteak on egingo liguke, gauza asko ikusarazten baitituzte). Bere garaian funtzionatu zuen eskola da, baina orain eraldatzen saiatzen ari garena. Zer aldatu behar dugu, ordea?

PiLT musika taldeak “Hil da Jainkoa!” zioen abesti batean. Francesc Imbernón-ek, berriz, zenbaki honetako elkarrizketa nagusian “Hil da irakaslea” dio. “Gora irakasle-taldea!” gehitzen du. Haren iritziz, bakarrik, bere gelan eta bere kasa lan egiten duen irakasleak ez dauka etorkizunik XXI. mendean. Eredu horrek ez du funtzionatzen, ez du balio nahi dugun aldaketarako eta berrikuntzarako. Talde-lana nahitaezkoa dela dio: elkarrekin pentsatzea, elkarrekin ikertzea, elkarrekin eztabaidatzea, elkarrekin erlazionatzea, elkarrekin bide berriak irekitzea...

Eta elkarrekin sinestea egiten den heziketa lanean eta lan horrek duen balioan. Izan ere,



Imbernónen iritziz, irakasleoi kosta egiten zaigu geure lanaren balioan sinestea. Ez gara ezagutzaren profesional sentitzen. Eta beraz, irakasleok ahalduntzeko premia azpimarratzen du. Irakasleok argi eduki beharko genuke lankideekin batera gauza garrantzitsuak egiteko gai garela. Ez daukagu itxaron beharrik zuzendaritzak, ikuskaritzak edo unibertsitateak zer esango. Irakasle bakoitza, gure lankideekin batera, ezagutza pedagogikoa sortzeko gai gara. Beraz, “zer diogu guk, irakasleok?”, galdetu behar dugu. Hori da ahalduntzea.

Ikastetxeari dagokionez, orain arteko egitura puskatu beharra dago berrikuntzak sartuko badira. Hala nola, adinak nahastu, irakasle bi edo hiru sartu gelara, ikasleak batetik bestera ibiltzeko askatasuna eduki, ikasgaien eskola ordu iraupena aldatu, espazioak ireki, erritmoak errespetatu, proiektuak lan egin, irakasleen arteko antolaketa aldatu...

Zorionez, ez dira hitz hutsak orain arte aipatutakoak. Zenbaki honetako gaien bi ikastetxeren berrikuntzen berri ematen da. Askotariko adimenean eta lan kooperatiboan oinarrituta, eskolako egitura apurtzen ari dira metodologia berriak probatuz. Eta abiapuntua irakasleen formazioa izan da; edo hobeto esanda, formazio horrek ekarri dien ikuspegi aldaketa. Irakasleen arteko bizikidetzaren positiboa eta giroa asko zaintzen dituzte eta talde-lanak euren arteko harremana hobetu du.

Ekuazioa aski garbi dago: irakasleen arteko talde-lana + eskola egitura eraldatua = proiektu berritzailea eta asebetegaria.

“Nik orain deskubritu ditut euskal kultura, literatura, musika... dena. Aldi berean nire nortasuna ere deskubritu dut, nolabait”

Gemma Zabaleta



## 25 IRAKASLE POSTU BEHAR DITUZTELA ALDARRIKATZEKO PROTESTAK EGIN DITUZTE SEASKAKO KIDEEK BAIONAN

Festa giroan, dabor hotsen erritmorra, protesta egin zuten maiatzaren 4an Seaskako ikasleek, gurasoek eta irakasleek Baionan, heldu den ikasturterako beste 25 irakasle postu behar dituztela aldarrikatzeke eta Frantziako Hezkuntza Ministerioari deia egiteko. Lortu ezean, heldu den ikasturtean, zenbait ikastolatan 40 ikasle baino gehiagoko gelak izanen dituztela salatu dute.

Pierre Barriere Pirinio Atlantikoetako ikuskariak izandako jarrera deitoratu du Paxkal Indo Seaskako presidentea. Ikasturte hasieran lizeo eta kolegioetako postuak hitzeman zizkieten, eta 4,5 postu lehen mailarako. "Ez zen aski, baina martxoan, bere hitza jan, eta zero postu izanen zirela erran ziguten".



**Mondragon  
Unibertsitatea**


Humanitate eta  
Hezkuntza Zientzien  
Fakultatea

### HEZKUNTZA MASTERRAK

1

Berrikuntza Didaktiko Metodologikoko  
Proiektuen Garapena eta Kudeaketa  
Hezkuntza Erakundeetan Unibertsitate  
Masterra (BERRIMET) 

2

Hezkuntza Testuinguru Multikultural eta  
Eleaniztunetan Unibertsitate Masterra  
(EKOMU) 

3

DBHn, Batxilergoan, Lanbide Heziketan  
eta Hizkuntzen Irakaskuntzan Irakasle  
Gisa Aritzeko Gaitzen duen Unibertsitate  
Masterra

**Egin zaitez hezkuntza berrikuntzan aditu**

INFORMAZIO SAIOA

**ESKORIATZA**

EKAINAK 14, osteguna, 18.00etan

[www.mondragon.edu/unibertsitatemasterrak](http://www.mondragon.edu/unibertsitatemasterrak)

# HIZPIDE IZAN DA

Iturria: Berria egunkaria

## HEZKUNTZA ITUNA EGIN DUTE ELA-K EZ BESTE SINDIKATUEK ETA JAURLARITZAK

Hezkuntza akordiorako oinarriak zehaztu dituzte Arabako, Bizkaiko eta Gipuzkoako hezkuntza publikoan. Sindikatuek eta Eusko Jaurlaritzak ondoko oinarriak adostu dituzte, besteak beste: ordezkapenak lehen egunetik egitea irakastaldi guztietan, hogei ikasle baino gehiago dituzten 3 urteko geletan errefortzuak jartzea eta 60 urte baino gehiagoko irakasleen eskola orduak heren bat murriztea. Bost sindikatu daude mahaietan eta lauk sinatu dute akordioa: LABek, Steilasek, CC00k eta UGTk. ELAk ez ditu ontzat eman adostutako neurriak, eta ez ditu sinatu.

2016ko otsailean hasi zuten lan gatazka EAEko hezkuntza publikoan. Hezkuntza lehentasunen artean ez jartzea egotzi zioten ELAk, LABek eta Steilasek Eusko Jaurlaritzari. Lau arlotan izan dituzte gatazkak: hezkuntza berezian, Haurreskolak partzuergoan, garbiketean eta sukaldeetan, eta irakaslerian. Bi urteotan zazpi egunetan jo dute grebara. Martxoan, eta astebeteko mobilizazioen atarian, ados jarri ziren irakasleenean ez beste mahaietan. Orain egin dute lan gatazka amaitzeko falta zen azken arloko akordiorako oinarria. Ez dira ados jarri aho batez: ELAk ez du lau arloetako itun bat ere sinatu.

## LEHENERATZEA ESKATZEKO PROTESTAK EGIN DITUZTE NAFARROAN

Hezkuntza sindikatu guztiek deituta protesta egin dute Nafarroan, eta aurreko legealdian ezarritako murrizketak leheneratzeko exijitu diote gobernari. Izan ere, UPNren gobernuak ikasleen ratioa handitu, irakasleen ordezkapenak gutxitu eta irakasleen eskola orduak gehitu zituen. Iazko martxotik, urtebete inguru pasa dute gobernuak eta sindikatuek negoziatzen, hezkuntza publikoko baldintzak zehaztu nahirik. Negoziazioetan daude bi aldeak eta ikusteke dago zer gertatuko den.



## URIARTEREN BOST OINARRIEK ESKOLA KONTSEILUAREN BABESA JASO DUTE

Euskadiko Eskola Kontseiluak ontzat jo ditu Eusko Jaurlaritzak hezkuntza lege berria adosteko proposatutako bost oinarriak: hezkuntza sistemaren modernizazioa, bizikidetzak, hizkuntzak, ebaluazioa eta ikastetxeen autonomia. Baina beste batzuk falta direla uste du: Euskal Hezkuntza Sistemaren egitura eta arkitektura, finantzaketa, euskalduntzea, plangintza eta erlijioaren tratamendua aipatu ditu. Dena den, oro har, Eskola Kontseiluak txostenaren balorazio positiboa egin du bere batzorde iraunkorrek idatzi duen ebazpenean. 21 ordezkariaren babesa jaso du. Aurka bederatzi agertu dira: sindikatuak eta EHIGE.

## ESKOLA SEGREGAZIOA GELDIARAZTEKO NEURRIAK ESKATU DITUZTE

Gasteizko Eskola Publikoaren Aldeko Plataformak egindako deiari erantzunez, eskoletako segregazioaren auzia aintzat hartu eta arazoari aurre egiteko "premiazko neurriak" galdegin dizkiote Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza Sailari. Aldarria ozen entzun zen maiatzaren 25ean egin zuten protestan: "Eskola publiko euskalduna, laikoa, demokratikoa eta koloretsua nahi dugu! Denona eta denontzat".



## UDAKO TOPAKETETAKO IKASTARO BATZUETAN BADA TOKIA ORAINDIK



Hik Hasiren Udako Topaketetan izena emateko epea amaitu bada ere, hainbat ikastarotan bada tokia oraindik eta izena eman daiteke.

- LEIOAN:
  - Pedagogia Sistemikoa
  - Mugak jarri autoestimua zainduz
  - Mindfulyoga. Adimena eta gorputza bat eginik
  - Bizitzaren eskola: askatasunerako pedagogia
  - Matematika eskuetara LHn
- DONOSTIAN:
  - Askatasunean hazi, hezi eta bizi
  - Komunikazio Ez Bortitzean sakontze maila
  - Dislexia
  - Mindfulness-a eta gogo-aldartearen kudeaketa hezkuntzan
  - Irakurketa eta idazketa konstruktibista
  - Jolasa eta jolas terapeutikoa eskolan
  - Garapen pertsonala irakasleentzat
  - Heriotzaren psikopedagogia
  - Ikasleak erakarri euskaraz egin nahi izan dezaten
  - Mindfulness-ean oinarritutako jarduerak ikasgelan
  - Antzerki teknikak: hezkuntzarako tresna pedagogikoa
  - Adimen emozionala hezkuntzan
  - SIRIMIRI: oinarrizko yoga teknikak ikasgeletan ongizatea lantzeko
  - Yoga eta kontzentrazio teknikak eskolan
  - ARTikertuz, Ikus-Artean oinarritutako ikasketa
  - Barne sormena lantzeko estrategiak

Ikastaro horiek betetzen diren arte, matrikulazioa egiteko aukera izango da, [www.hikhasi.eus](http://www.hikhasi.eus) webgunearen bitartez. Gainerako ikastaroetan jada ezin da izena eman bi arrazoi tarteko: beteta daudelako, edo gutxieneko partaide kopurura iritsi ez eta bertan behera geratu direlako. Ikastaroak ekainaren 26 eta 27an izango dira Leioan, eta uztailaren 2, 3 eta 4an Donostian. 2an eta 3an, arratsaldeko 16:00etatik 18:30era, tailer irekiak eskainiko dira Donostiako EHU.

## 'HERRIGINTZAREN ARO BERRI BATERAKO BEGIRADAK' SAIOAN HARTUKO DU PARTE HIK HASI-K

UEUk eta Iratzar Fundazioak elkar-lanean antolatuta, herrigintzaren inguruko azterketa eta hausnarketa pausatua egiteko *Herrigintzaren aro berri baterako begiradak* izeneko ikastaroa egingo da ekainaren 28an eta 29an Eibarko Markeskoa Jauregian. XXI. mendeak, Euskal Herriari aurkezten dizkion erronka berrien markoan, eta burujabetza eta demokratizazio prozesu baten baitan, euskalerrigintzaz birpentsatu eta imaginario berri baten sorkuntzarako eta artikulaziorako hausnarketa gune izatea nahi dute antolatzaileek. Jardunaldiotan, besteak beste, Hik Hasi-ko kide Xabier Sarasua ariko da hizlari lanetan.

## ESKOLA TXIKIEN FESTA EGINGO DA EKAINAREN 10EAN OIKIAN

Oikiako (Zumaia) eskolako kideak "mimo bereziz" prestatzen ari dira Gipuzkoako Eskola Txikien 31. festa. Ekainaren 10ean, bost gune zabalduko dituzte hamaika ekintza eskainiz. Eskola txikiek herrietan duten eragina txalotu du Itziar Gartziarena eskolako zuzendariak: "Altxor bat dira".



# HIZPIDE IZANGO DA

## ORAINDIK AUKERA DAGO DATORREN IKASTURTEKO HAUR HEZKUNTZAKO 0-3 FORMAZIOAN IZENA EMATEKO



0-3 urte arteko hurrekin aritzen diren profesionalen prestakuntzan sakontzeko asmoz, 260 orduetik gorako bi urteko prestakuntza eskainiko du datorren ikasturtean ere Hik Hasik, bere 6. promozioan. Taldea osatu bada ere, oraindik hainbat plaza geratzen dira. Beraz, interesa duenak izena eman dezake tokiak bete arte.

Hainbat oinarri izango ditu formazio horrek: Emmi PIKLER; bestelako zenbait pedagogia BERRITZAILA: Loris Malaguzzi, Rebeca eta Mauricio Wild, Maria Montessori, Angelica Olvera, Rudolf Steiner...; formazio pertsonala, etab.

Ikaslerro horietan gaian adituak diren Euskal Herriko nahiz kanpoko hezitzaileek emango dute prestakuntza. Informazio osoa eta izena emateko aukera: [www.hikhasi.eus](http://www.hikhasi.eus) webgunean dago. Informazio gehiagorako [hikhasi@hikhasi.eus](mailto:hikhasi@hikhasi.eus)-era idatz daiteke edota 943 371408 telefono zenbakira deitu.

## 'HERRIAK ETA KALEAK GIZARTEAK ERAIKITZEKO PLAZAK' IKASTAROA EGINGO DA UZTAILAREN 16AN ETA 17AN

Azpeitiko Udalak antolatuta, EHUren Udako Ikastaroen barruan *Herriak eta kaleak gizarteak eraikitzekeko plazak*. Herri hezitzaileak eta kulturgintzaren transmisioa Euskal Herrian ikastaroa egingo da uztailaren 16an eta 17an Donostiako Miramar jauregian. Hizlarien artean izango dira Bartzelonako Udaleko ordezkari Joan Subirats, Lorea Agirre, Joxe Mari Auzmendi, Iratxe Retolaza edota Gotzon Barandiaran. Informazio gehiago nahi izanez gero, edota matrikula egiteko [www.uik.eus](http://www.uik.eus) webgunera jo behar da.

## HAUR HEZKUNTZAKO BERRIKUNTZAN IRAKASLE ADITUA IZATEKO FORMAZIOA SORTU DU MU-K

Bereziki 0-6 adin tarteko hurrekin lanean aritzen diren profesionalen zuzenduta, Haur Hezkuntzako Berrikuntza Aditu Titulua sortu du Mondragon Unibertsitateak. Tituluak Haur Hezkuntzako profesionalen profila elikatu nahi du, irakasleak berrikuntza prozesuetarako ahalduzko. Lanbidearen alderdi pertsonal eta profesionalaren arteko oreka bilatzeko zereginen eragin nahi du, hala, berrikuntzarako beharrezko kompetentziak garatzeko.

Lanean ari diren Haur Hezkuntzako Graduatu, Diplomatu eta Goi Teknikariei zuzenduta dago titulua. Bereziki interesgarria da bere lan eremuan berrikuntza prozesuan murgilduta edo murgiltzeaz dauden profesionalentzat. Eraldaketa pertsonala eta norbere nahiz besteen praktikaren gaineko hausnarketa izango dira formazio honetan lan egiteko bi zutabe nagusiak.

Alexander Barandiaran psikopedagogoa da urtebeteko formazio honen koordinatzailea ([abarandiaran@mondragon.edu](mailto:abarandiaran@mondragon.edu)). Ekainaren 7an informazio saio irekia egingo da, 18:00etan, Aretxabaletako campusean. Informazio gehiagorako edota matrikulazioa egiteko Jaione Urbietarekin jarri behar da kontaktuan [jurbietta@mondragon.edu](mailto:jurbietta@mondragon.edu) helbidera idatziz edota 943 714188 telefono zenbakira deituz. [www.mondragon.edu](http://www.mondragon.edu) webgunean ere eskura daiteke informazio osagarria.



1983an aurkeztu zuen Howard Gardner psikologoak eta AEBetako Harvard Unibertsitateko irakasle eta ikertzaileak askotariko adimenen teoria. Haren arabera, pertsona guztiek zortzi adimen mota dituzte gutxienez, eta edonor da adimentsua batean ez bada bestean. Alegia, gauza batean ez bada bestean, denok garela onak edo adituak. Horrek ikasteko eta lan egiteko indarra eta motibazioa ematen du. Halaxe frogatzen ari dira Tolosako Herrikide eta Bilboko Jesuitinak ikastetxeetan. Ikasleei era guztietako gaitasunak garatzeko aukera emanda, gusturago ikusten dute. Askotariko adimenak eta jardunbide kooperatiboa ardatz hartuta, nola lan egiten duten azaltzen da orriotan.

# GAIA:

# ASKOTARIKO

# ADIMENAK

## Gusturago aritzeko eta gehiago ikasteko

**H**oward Gardnerrek askotariko adimenen teoria definitu zuen 1983. urtean. Gizakiok adimen bat baino gehiago ditugula zioen, batzuk gehiago garatuta eta beste batzuk gutxiago. Eguneroko bizitzan ohituta gaude hori ikustera: denok ezagutzen dugu norbait bizikletak konpontzen oso iaioa dena baina abesten hasi eta bukatzen ez duena; edo sekulako postreak egiten dituen baina belarretan oinutsik ibiltzeko gai ez dena; edo igerilari trebea dena baina bi esaldi idazteko denbora asko behar duena...

Kaleko bizitzan hain ohikoa dena, eskola barruan ez da hala izan, ordea. Adimen logiko-matematikoak eta linguistikoak soilik zuten presentzia, gainerakoak ez ziren ia existitu ere egiten. Horregatik ekarri zuen iraultza Gardnerren teoriak. Pertsona bakoitzak gutxienez zortzi adimen dituela onartzea eta gelan denei lekua egitea aldaketa handia izan da. Gauza batean ez bada bestean, denok gara adimentsuak, eta horretaz jabetzeko aukera ematen du teoria honek. Ikasleei era guztietako gaitasunak garatzeko aukera ematean, ikasleak gusturago aritzeko aukera handitzen da. Eta gustura aritzean, motibazioa igo egiten da. Eta motibaturata egonda, gehiago ikasten da.

Gardnerrek zortzi adimen sailkatu zituen hasieran. Gero bederatzigarrena gehitu zuen. Eta orain hamargarrena

ikertzen ari da. Gaitasun bat adimena dela esateko burmuineko leku batean kokatuta egon behar du eta oinarri zientifiko bat eduki behar du. Gardnerrek beti esan izan du ikertzen jarraituko duela, horretara irekita dagoela eta ez duela mugarik jartzen zenbat adimen dauden esateko.

Honako hauek dira Gardnerrek definitutako adimenak:

- **Adimen musikala:** doinuak eta erritmoak identifikatzeko, erreproduzitzeko eta sortzeko behar den adimena.
- **Adimen linguistikoa:** ondo komunikatzeko eta hizkuntzak (ahozkoa, idatzia, keinu bidezkoa...) egoki erabiltzeko gaitasuna da.
- **Adimen logiko-matematikoa:** logikarekin eta matematikarekin lotutako problemak ebazteko gaitasunarekin du zerikusia.
- **Gorputz adimena:** adimen zinesesikoa ere deitzen zaio. Norberaren gorputza erabiltzeko gaitasuna da; adimen hau garaturik duten pertsonak gaitasun handia erakusten dute beren gorputza mugitzearekin lotutako eginkizunak ikasteko, izan gorputz-atal zehatzei dagokiena, izan gorputz osoa inplikatzeko duen eginkizuna.
- **Adimen bisual-espaziala:** espazioaren hiru dimentsioak eta espazioko mugimenduak nahiz objektuen abiadurak identifikatzeko gaitasuna.
- **Adimen intrapertsonala:** norberaren burua ezagutzen eta norberaren emozioak kudeatzen laguntzen duen adimena.

GAIA:

## ASKOTARIKO ADIMENAK

Gusturago aritzeko eta gehiago ikasteko

- **Adimen interperersonala:** besteekin erlazionatzeko eta harremanak izateko gaitasuna.
- **Adimen naturalista:** naturan dauden elementuekin (izaki bizidunekin, batez ere) harreman onak izateko gaitasuna.
- **Adimen espirituala:** gerora gehitutako bederatzigarren adimena. Kosmoseko muturreko alderdiekin (infinitoa eta infinitesimala) erlazionatzeko gaitasuna eta gizakiaren zenbait ezaugarri existentzialekin norberak bere burua kokatzeko gaitasuna (bizitzaren eta heriotzaren esanahia, mundu fisikoaren eta psikologikoaren norakoa, sakoneko maitasuna sentitzea, artelan baten aurrean liluratuta gelditzea...).
- **Adimen pedagogikoa:** adimen hau ikertzen dihardu gaur egun Gardnerrek. Dakigunaz jabetzeko eta besteei ikasketa prozesuan laguntzeko gaitasuna izango litzateke.

Adimen horiek ez daude geldirik gure barnean, garatuz doaz. Gardnerrek dio burmuina moldagarria dela, adimen horiek ez direla estatikoak eta finkoak eta landu egiten direla bizitzan zehar. Irakaskuntzaren bidez, esperientziarekin, erronka eta egoera berriein landu daitezke.

### Bai, eskolan posible da

Aniztasuna aberatsa dela eta ez oztopo jabetzen ari garen garaiotan, denok desberdinak garela eta bakoitzak bere abileziak eta bere egiteko moduak bilatu behar dituela diogunean, nola lortu hori? Askotariko adimenak lantzeak hainbestetan aipatzen den ikaskuntzaren pertsonalizazioa errazten eta bideratzen du. Askotariko adimenen paradigmen bidez hori posible da.

Halaxe ikusi dute Tolosako Herrikide ikastetxean. Txaro Etxeberria Haur eta Lehen Hezkuntzako orientatzaileak azaltzen digunez, “teoria honen arabera lanean hasi aurretik hiru zutabe nahiko sistematizatuta geneuzkan: adimen emozionala asko landuta, bizikidetzaren positiboa sustatzeko estrategia desberdinak martxan eta hainbat aldaketa metodologiko eginda, batez ere, ikaskuntza kooperatiboaren inguruan. Hala, berritzen jarraitzeko nondik jo genezakeen pentsatzen hasi ginen. Eskola bat izanda, adimen linguistikoa lantzen genuela ikusten genuen. Logiko-matematikoa ere bai. Adimen emozionala hainbeste lantzen ari ginenez, adimen interperersonala eta intraperersonala ere oso sistematizatuta geneuzkan. Eta alderdi espirituala ere betidanik landu izan dugun dimentsioa da. Beraz, Gardnerren askotariko adimenen paradigma aplikatzen hasteko oso momentu egokian geundela sentitu genuen”.

2011. urtea zen Gardnerren ikuspegiarekin bat egin zuten hura. “Argi ikusten dugu gutako batzuk asko hitz egin eta entzuten dugunak garela; beste batzuk irudietan fijatzen direla; beste batzuk mugimendua behar dutela, apunteak hartu eta hara eta hona mugituz ikasten dutela. Denok daukagu adimen guztiak, baina ez maila berean: batzuk garatuago eta beste batzuk ez hain garatuak”. Eta hor antzematen da bakoitzaren indarguneak eta ahulguneak non dauden. “Eta hori funtsezkoa da: indarguneetatik abiatuz horiek hobetzen saiatu behar dugu, eta baita gainerako adimenak edo gaitasunak hobetzen ere” dio Etxeberriak. “Zer egin dugu orain arte irakaskuntzan?” galdetzen du. “Gabezietan zentratu (lagundu nahian, noski). Ikasle honek



## GAIA: ASKOTARIKO ADIMENAK

zailtasunak dauzka honetan, zailtasunak dauzka hartan... eta horiek hobetzen saiatu izan gara laguntzak jarritz eta abar”. Orain, ordea, alderantzizkoa egiten dute Herrikiden. “Zergatik ez abiatu indarguneetatik? Pertsona guztiak gara adimentsuak, baina bakoitza arlo desberdinean. Bada, abia gaitezen arlo horietatik!” azpimarratzen du Etxeberriak. “Gero autoestimua lantzen ibiltzen gara! Hortik abiatuta ez al daukagu jada askoz ere oinarri egokiagoa?”

Teoria hori aplikatze hutsarekin, ikasleek antzematen dute aldaketa. Izan ere, mezua desberdina da. “Denok gara adimentsuak” esaten zaie. Era desberdinetan, baina denok gara inteligenteak. “Ikasleari ikusarazi egin behar diogu gauza batzuetan hainbesteko erraztasunik ez badu ere, beste batzuetan baduela, egokia dela, badaukala zer aportatua, hori estimatzen dela eta beste batzuei erakuts diezaiekeela” azpimarratzen du Etxeberriak.

Bilboko Jesuitinak ikastetxean, berriz, 2006an hasi ziren askotariko adimenak lantzen. Josune Extremiana zuzendariak gogoratzen du urte hartan kompetentziatara pasatzeko eta kompetentzien bitartez ebaluatzeko araudia egin zela. “Abagune hura probestu genuen LOGSEren garaitik erabat bukatu gabe zegoen aldaketa egiteko. Kompetentzien ildoari lotu eta irakasleria formatzen hasi ginen, eta hor egin genuen topo gure motorra izan denarekin: Bartzelonako Montserrat ikastetxeko esperientziarekin”. 15 urte zeramatzaten oinarri zientifikoa zuen Gardnerren teoria aplikatuz, arrakasta handiz. “Bartzelonan posible baldin bada, hemen ere izan daiteke!” pentsatu zuen Extremianak. Etxeberria ere erabat ados dago: “Hango esperientziak argi egin zizgun”. “Berrikuntza honekin hasi ginenean eskola eraldatzeko metodo serioa zela iruditu zitzaigun”, gehitzen du Extremianak. “Gardnerren teoria gure sorreratik nahi izan dugunaren konkretzio eguneratua da; alegia, pertsonaren adimen guztiak aintzat hartzea, pertsonaren alderdi guztiak, emozionala eta espiritualak barne, ez adimen intelektualak soilik. Horregatik, oso erakargarria egin zitzaigun, gure hezkuntza-proiektuaren oinarria egungo egoerara egokitzea bezala baitzen, eta oinarri neurozientifikoaren bermearekin. Geurean berretsi eta aldaketari ekin genion”.

### Lan egiteko modua, taldean

Askotariko adimenak lantzeak batez ere ikuspegi aldaketa ekarri diela aitortzen du Bilboko Jesuitinak ikastetxeko zuzendariak. “Metodologia aldaketa baino gehiago da, kultura aldaketa ekarri digu. Sarritan metodologia berrietan jartzen dugu arreta, baina benetan garrantzitsuena rol aldaketa da: ikaslea erdigunean jartzea eta protagonismoa ematea, irakaslea bide-erakuslea izatea... Eta ikuspegi aldaketa horrek dakar metodologiak aldatzea”.



Aldaketa funtsezkoa izan da irakaslearen rol aldaketa: jada ez da irakaslea dakiena eta ikaslea ez dakiena, irakaslea azalpenak ematen dituen ikasleak ikas dezan. Azalpenei uko egin behar die irakasleak; orain irakaslea bide-erakuslea da. “Orain arte azalpenak funtsezkoak izan dira eta horixe zen irakasleak sinesten zuena: azaldu egin behar diet. Eta ikasleek ere hori eskatzen zuten; baita familiek ere: ‘ez du ulertu eta berriro esplikatzea behar dio’”. Orain, aldaketarekin aurkikuntzak egiteak eta ondorioak ateratzeak hartu du garrantzia”. Alegia, ikasleak gauzak galdetu eta aurkitu behar ditu eta irakasleak galderak eginez dedukziozko arrazoibidea egiten laguntzen dio. Horregatik, irakaslearen funtzioa erantzuna topatzen laguntzea da, ez azalpenak ematea. Prozesua geldoagoa da, zalantzei eutsi behar zaie eta ez ulertzeak sortzen duen angustia bideratu behar da. “Badakit esplikatzea gustatuko litzazukeela, baina aztertuz joango gara, ea ikaskideek lagun diezazuketen edo nola ebatzi dezakezun arazoa” da irakasleak esan behar diona.

Behin ikuspegi aldaketa eginda, hori martxan jartzeko bi zutabe dituzte: lan kooperatiboa eta askotariko adimenak. Extremianak prozesua esplikatzen digu: “Irakasleek ildo nagusiak zehazten dituzte, hau da, ikasleak iristea nahi duten ulermen-helburuak zerrendatzen dituzte. Behin xedeak zehaztuta, horiek lortzen lagunduko duten ekintzak bilatzen dituzte irakasleek. Ekintza horietan askotariko adimenak landuko dituzte jarduerak programatzen dituzte: musikala, linguistikoa, logiko-matematikoa, gorputz-adimena, bisual-espaziala, intrapertsonala, interpersonala, naturalista eta espiritualak”. Horrela, matematika lantzen ari diren bitartean, adimen logiko-matematikoa jorratzeaz gain, gainerakoak ere barnebiltzen dituzte.

# Ekinez egiten

Tolosako Herrikiden nahiz Bilboko Jesuitinak ikastetxean Gardnerren teoria praktikan jartzeko egokiak iruditzen zaizkien metodologiak erabiltzen dituzte. Aipatutako indargune horiek baliatzeko aukera ematen dietenak. Esperientzia eta ekintza ugari eta anitzak egiteko abagunea ematen dietenak. Jarraian azaltzen dira horietako batzuk.

## - Diziplinarteko proiektuak

Hiru ikasgaitako irakasleak elkartu eta elkarrekin prestatzen dute proiektu bat Bilboko Jesuitinak ikastetxean. Gaiak askotarikoak izan daitezke: energia, historiaurrea... baina hiru ikasgaien ikuspegitik lantzen da. Hiru ikasgai horietako ordu batzuk proiektu horri dedikatzen zaizkio. Proiektu batzuek hiruhileko osoa iraun dezakete.

Beste eredu bat izan daiteke bi ikasgaitako irakasleak elkartu eta gai bat ikasgai horietako orduetan lantzea unitate didaktiko baten bitartez eta modu bateratuan. Ondoren, bukatzeko, gaiarekin lotutako irteera bat egiten dute.

## - Entusiasmat

Ikasgai bakarrean ere landu daitezke askotariko adimenak. Bilboko Jesuitinetan Entusiasmat deritzotenarekin egiten dute, adibidez. Ikasgaia askotariko adimenen arabera programatzen da eta ekintza desberdinak egiten dira.

## - Ulermen-proiektuak

Herrikide ikastetxean Haur Hezkuntzan, Lehen Hezkuntzan eta DBHn asko lantzen dituzten proiektuak dira. “Hasteko, ikasleentzat zerbait zirarragarria egiten dugu: antzerki bat, bideo bat...”, azaltzen du Etxeberriak. “Eta horrekin kuriositatea pizten dugu; zer ote da?”. Gero, hilabete eta erdiz-edo, ekintza mota asko egiten dituzte, eta saiatzen dira bederatzi adimen motak hor barneratuta egotea. “Edonola ere, gerta liteke adimen zehatz bat lantzeko oso egokia ez izatea gai hori” dio Pello Agirrezabal Herrikideko Haur eta Lehen Hezkuntzako zuzendariak. “Ez gara behartzen ibiltzen. Kasu horietan, hurrengo proiektuan lantzen dugu”. Esate baterako, HH5en Joan Miró pinto-rearen gaineko proiektua landu zutenean, adimen musikala txertatzea zaila egin zitzaion eta, beraz, hurrengo proiektuan lehentasuna adimen musikalarari eman zioten. “Bai, lehentasuna eman genion. Arreta jarri behar baita, adimen hori jorratu gabe gera ez dadin”, argitzen du Agirrezabalek.

Egiten dituzten ekintzekin helburu oso konkretuak lantzen dituzte, eta ekintza horiekin edukiak lantzen dituzte.

“Betidanik landu izan dira edukiak eskoletan, ikasgaitan banatuta” dio Etxeberriak. “Ulermen-proiektuekin, berriz, eduki edo kompetentzia horiek egoera errealekin lortzen dira”. Proiektuari amaiera emateko, zerbait oso esanguratsua egiten dute: museo batera irteera bat, gurasoekin batera erakusketa bat egin...

## - Workshop-ak

Herrikiden LH5etik DBH2ra, bi egunetan tailerrak muntatzen dituzte irakasleek ikasleentzat, irakasle bakoitzak tailer bana. Guztira 16 inguru. Zer tailer mota? Bada, irakasle bakoitzak nahi duena, beraien interesen arabera: bizikletak konpontzeko tailerra, bonboiak egitekoa, mindfulness, mendiko orientazioa, eskulturak hiru dimentsiotan, piraguan ibiltzeko irteera... “Ikasleei gustuko duten tailerra aukeratzeko parada ematen zaie eta tailer bakoitzean adin desberdinetako 20-30 ikasle biltzen dira” dio Agirrezabalek. “Hasieran kohesio ariketa bat egiten dute guztiek, elkar ezagutzeko, taldeak berriak baitira”.

Bi egun irauten du *workshop* deitzen dioten muntaia honek. Ohiko ordutegia apurtu eta horretan murgiltzen dira. Egiten dituzten ekintzetan askotariko adimenak lantzen dituzte eta amaiera erakargarria ematen diote: bonboiak egin ondoren Gorrotxategira joaten dira bisitan, pizza egiteko labea behar dutenez herriko elkarte batera joaten dira, piraguan ibiltzera Ori ibaira joaten dira, modako desfilea egiten dute... Tailerretako ekintzak aitzakia bilakatzen dira kompetentzia batzuk lantzeko.

## - Design for change

Lehen Hezkuntzako 6. mailan egiten duten proiektuari deitzen diote horrela Tolosako ikastetxean. Abiapuntua galdera batean dago: zertan izan dezakegu eragina herrian edo ikastetxean? Zerrenda bat egiten dute: kaleak garbiago mantendu, eskolako patioa berrantolatu... Horietako bat hautatzen dute eta talde kooperatiboetan erabakitzen dute zer ekintza egin ditzaketen helburu hori lortzeko. Egin beharreko guztia diseinatu, egin eta ebaluatu egiten dute. Esate baterako, goxoki dendaren ingurua oso zikina gelditzen zela ikusi zuten eta hori garbi mantentzea jarri zuten helburu gisa Herrikideko ikasleek. Pegatinak egin zituzten, herriko beste bi ikastetxeetako ikasleei euren asmoaren berri eman zieten, udaletxera joan eta alkatearekin hitz egin zuten... “Eta hori dena egin bitartean, zenbat adimen ari diren lantzen! Hasi linguistikotik, eta interperpersonalera, naturalistara... eta hori, bizi egin behar da!” dio Etxebe-

riak. Agirrezabalek beste balio bat ere ikusten dio lan honi: “Beti esan ohi dugu ‘udaletxeak egin beharko luke’. Bada, hor gelditu partez, goazen ikustera zertan eragin dezakegun guk geure ingurune hurbilean”.

### - Ikaskuntza-paisaiak

Herrikiden urtero LHko 6. mailan erabiltzen duten metodologia bat da. Ordenagailuak erabiliz eta ingelesez egiten dute. Adibidez, bat energiari buruzkoa da. Irakasleak diseinatutako ibilbide bat daukate ordenagailuan, mapa baten modukoa. Ibilbide hori egin bitartean ekintzak egiten dituzte; batzuk derrigorrezkoak eta beste batzuk hautazkoak. “Eduki gako batzuk denek ikasi behar dituzte; baina horiez gain, gero bakoitzak bere ibilbidea egiten du. Mendira joaten garenean bezala: batzuk eskalatzuz joaten dira, beste batzuk zig-zagean, beste batek atsedean hartuko du bidean...” azaltzen digu Agirrezabalek. “Ordenagailua gustatzen zaion ikaslea gustura jarduten da. Energia gustatzen zaionak ere, betiko liburutik azpimarratuz aritu beharrean, ikaskuntza paisaiarekin beste modu batera ikasiko du”. Bukaeran produktu bat eginez amaitzen dute: mural bat, idatzi bat, koreografia bat... Modu horretara, ebaluatzeko beste modu batzuk sortzen dira, eta ez soilik ohiko idatzizko azterketa.

Metodologia anitz, baina ez nahastuta. “Garrantzitsua da zer, nola eta zertarako erabiltzen den jakitea”, dio Etxeberriak. “Gainera, batzuk egokiagoak dira adin baterako eta beste batzuk beste baterako. Kontua da ikasle bakoitzak denak probatzea maila batean ez bada bestean”.

### Eta ondorioak? Zer ikusten da?

Herrikideko kide biek argi diote: “Ebidentzia zientifikorik ez daukagu, baina guk ondorioak ikusten ditugu. Lehen baino ikasle gutxiago gelditzen dira eskolara etorri nahi ezik sabeleko mina dutela-eta”. Edonola ere, neurketa zientifikoak egiten hasiak daude. Unibertsitatearekin elkarlanean ari dira; Herrikidekoek laborategia daukate, eta unibertsitatekoek ikerketak egiteko aukera, ezagutza eta abar. Galdetegiak betetzen hasiak daude, adimen emozionala edo askotariko adimena lantzeak haurrengan eragin positiborik ba ote duen ikusteko zientifikoki eta modu neuratuan.

Extremianak dio elkarbizitza asko hobetu dela euren ikastetxean. “Orain ikasleek mugitzeko eta parte hartzeko aukera handiagoa dute. Mugimendu gehiago dago, baina mugimendu antolatua da, kaos antolatua. Ikasleak zentratuta daude. Gela batera sartu eta ikasleak ez daude isilik duela hamar urte egon zitezkeen bezala. Baina lehen ikasleak aspertu egiten ziren. Gaur egun garbi dakigu hamar minutu baino gehiagoko azalpen bat entzuteko gai ez direla, neurozientziak esaten digu. Beraz, hortik aurrera, beste gauza batean pentsatzen arituko dira, alperrik da azalpenekin jarraitzea”.

Modu kooperatiboan lan egiteak eta rolak aldatzen joateak izugarri laguntzen die ikasleen erritmo aniztasunari erantzuten. Talde lanean hainbat rol daude: zuzendariarena, idazkariarena, bozeramailearena... eta ikasleek guztiak pro-



batzen dituzte. Horrela, konturatzen dira ez dela garrantzitsua azkarrago edo mantsoago ikastea, baizik eta ikasteko modu asko daudela, funtzio asko daudela, eta batentzat bat egokiagoa izan daitekeela eta beste batentzat beste bat.

Lan egiteko modu honek denbora gehiago eskatzen du, noski. Bai irakasleentzat eta bai ikasleentzat. “Irakasleen kezka zen ez zutela denborarik curriculumeko edukiak emateko” dio Extremianak. “Baina kontua ez da edukiak ematea, zeren gerta liteke zuk eduki guztiak ematea baina ikasleek ez ikastea. Garrantzitsuena ikasleek parte hartzea eta gauzak beste modu batera egitea da”. Ikasleei, aldiz, denbora beste gauza batek eskatzen die: ados jartzeak. Izan ere, talde-lanean zenbait ekintza aurrera eramateko ados jarri behar izaten dute denek, eta horrek denbora eskatzen du.

Orain edukiak integratuago edo lotuago dituzte. “Lehen hainbat gai ikasgai konkretu batzuetan lantzen genituen: tutoretzan, pastorelean... Eta orain dena integratuago daukagu. Gizarteko edo Matematikako eskoletan ere lantzen dugu arlo emozionala”, azaltzen du Extremianak. “Gatazkei sortzen diren unean bertan heltzen diegu, berdin du tutoretzako saioan egon edo matematikakoan”.

Ebaluazioa izan da aldatu den beste elementu bat. Legeak dio aktak notekin eta konpetentziekin egin behar direla, biek, nahiz eta Extremianak dioenez, “oraindik notak jartzea zorrozki bete eta konpetentzietan ebaluatzea ez hainbeste”. Edonola ere, jabetzen dira askotariko adimenak eta konpetentziak ebaluatzeko notek ez dutela balio, testu deskriptiboak behar direla. “Haur Hezkuntzako curriculum guztia askotariko adimenen baitan antolatuta daukagu eta gurasoei ematen zaien buletin ere bai. Orain, gauza bera egiten ari gara LH1etik DBH4ra”, azaltzen du Bilboko ikastetxeko zuzendariak. “Hamahiru konpetentziak eta askotariko adimenak (bederatz) lotu ditugu: konpetentzia bakoitzaren jardura guztiak zehaztu ditugu, bakoitzean lortu behar dituzten ezaugarri eta trebetasunak, eta horren baitan hiru maila deskribatu ditugu: behekoa, ertaina eta goikoa. Eta horrekin errubrika bat egin dugu. Orduan, familiei bi buletin emango dizkiegu aurten: bata notekin eta bestea konpetentzien deskribapenarekin eta horietako bakoitzean duten mailarekin, dena testu bidez idatzia. Deskripzio hori da benetan balio duena, trebezia sozialak ezin baitira zenbakiarekin azaldu. Hor ikusten dute gurasoek seme-alabak nola eboluzionatzen duen lan kooperatiboan, nola betetzen dituen rol desberdinak eta abar. Matematikan 7 atera duela esateak ez dit argitzen taldean liderra edota bozeramailea izaten ikasten ari den edo ez”.

### Zailtasunak ere badira

Bidean badira zailtasunak, bai ikasleentzat, bai irakasleentzat eta baita familientzat ere. Ikasleen kasuan, batzuetan kostatu egiten da nork bere harri-koskorra ekartzea. Bizitza errealean kostatzen den bezala. Alegia, beti dago norbait taldearentzat lanik egiten ez duena. Eta noski, gero taldeko ebaluazioa denentzat berdina denez, horrek gatazkak sortzen ditu.

Familiei ere kostatzen ari zaie aldaketa ulertzea: gero selektibitatean zer? Egiteko gai izango al dira? Unibertsitatera joaten direnean prest egongo al dira? Eta gero? “Kontraesanez beteta gaude, zeren unibertsitate behin eta berriz esaten digute taldean lan egiten ikas dezaten nahi dutela. Eta han ere lan asko egiten da modu kooperatiboan” dio Extremianak. “Selektibitatea da gure funtzionamendua erabat puskatzen duena. Batxilergoan azterketa konkretu batzuetarako prestatu behar ditugu ikasleak, eta ez du inolako zerikusirik ordura arte egindako ibilbidearekin. Eta gainera, ondoren, ez zaio inolako jarraipenik ematen selektibitatean egindakori. Sistemaren inkongruentziak!”.

### Irakasleen arteko kutsadura positiboa

Aldaketa horiek guztiak egiteko abiapuntua irakasleen formazioa izan da. Argi dio Etxeberriak: “Ikasleekin hasi aurretik, lehenengo gu geu. Ezin diegu besteei eskatu guk egiten ez badugu”. Horrexegatik, lehendabiziko formazioa eta ikuspegi aldaketa irakasleek eurek egin zuten. Eurak hasi ziren adimen emozionala, musikala, intrapertsonala, interpersonala eta gainerakoak euren egunerokoan lantzen eta bizitzen. Eta, noski, lantzen dituzten proiektuetan ere beti egin behar izaten dituzte aldaketak eta egokitzapenak. “Izan ere, aurreko urtean beste irakasle batek erabilitako proiektua baldin bada, hark bere indarguneak eta ahulgu-neak izango ditu, eta aurtengoak bereak” azaltzen du Etxeberriak. “Beraz, horrek egokitzea eskatzen du”. Irakasleen artean ere askotariko adimenak eta interesak baitaude.

Aintzat hartu behar da Tolosako Herrikiden askotariko adimenak lantzen hasi aurretik adimen emozionalaren lantzean ibilbide luzea eginga zutela. Orain dela 15 urte ekin zioten gai horri eta ikastetxearen bizkarrezurra bilakatu da adimen emozionala. Ongi landutako eta zaindutako lurra bilakatu zaie. Eta behin lurra onduta eta prestatuta, gainerako guztia, gainerako haziak eta fruituak, errazago etorri dira. Adimen emozionalaren arloan adin bakoitzera egoki-



tutako dinamika eta ekintzak dituzte eta 3 urterekin hasten dira emozioez hizketan, emozioak lantzen eta era egokian kudeatzen. “Zer moduz?” galdetu eta “ondo” edo “gaizki” erantzunekin ez dira konformatzen. Beste hitz batzuk erabilazten dizkiete: haserre, triste, minduta... Eta txikitatik horrela hasita, entrenatuz joaten dira, ohituz. Herrikideko 5 urteko haurrek enpatia, asertibitatea eta horrelako hitzak erabiltzen omen dituzte. “Gure umeei naturala egiten zaie hitz horiek erabiltzea”, dio barrez Etxeberriak. “5 urterekin dinosauroen izenak arazorik gabe ikasten baldin badituzte, zergatik ez asertibitatea edo enpatia hitzak? Guretzat matematika hitza naturalagoa da, baina beraientzat matematika edo aserbitatea ikasi, antzekoa da”.

Nabarmena da jarrerak aldatuz gero, berrikuntzak etortzen direla. “Askotan hezkuntzan beldurrak, kezak edo aitzakiak izaten ditugu”, dio Agirrezabalek. “Askotan esaten dugu oso lotuta gaudela goitik edo ikuskaritzatik esaten digutenari. Eta ez dugu gezurrik esaten muga horiek aipatzen ditugunean, hala sentitzen eta bizitzen dugulako. Baina guk ikuskaritzaren aldetik inoiz ez dugu inolako arazorik izan. Kontrakoa esango nuke nik. Nahi ditugun aitzakiak aurki ditzakegu gauzak ez aldatzeko: selektibitatea, unibertsitatea... baina nahi eta uste baino askatasun handiagoa daukagu gauzak mugitzeko, probatzeko eta egiteko.”

Extremianak dio, hala ere, kosta egiten dela aldaketak egiten hastea, betikotik ateratzeak segurtasun eza sortzen baitu. “Gainera, beste lanbideetan, lanean hasi arte ez daukagu inolako erreferentziarik. Baina, irakasleon kasuan, denok pasa gara eskolatik eta bizi izandakoak markatu egiten gaitu. Ez gara hutsetik hasten. Horregatik, orri zuri bat hartu eta berritik hastea kosta egiten da”.

Horrelakoetan, lehen urrats hori egiteko, lankideen arteko kutsatze positiboak asko funtzionatzen du Agirrezabalek dioenez: “Batek zerbait probatzen du, ingurukoek ikusten dute, zertan ari den galdetzen diote, haiek ere hasten dira, eta horrela, zabaldu egiten da. Esate baterako, irakasle batek xakea tresna pedagogiko gisa erabiltzeko asmoa adierazi zuen, eta poliki-poliki beste irakasle batzuk ere hasi ziren ondoren. Gauza bera “Egunon” programarekin. LHko 3. zikloan irakasle batek astegun bakoitzean goizeko 9:00etatik 9:15era egunero ekintzatxo bat egitea proposatu zuen eta berehala hasi ziren 2. ziklokoak ere, euren adinera eta erara egokituta. Kanpoko formazioak adina funtzionatzen du barne kutsatze horrek”. Extremiana ere ados dago horrekin. “Gurean aldaketa nabarmena izan zen irakasle

batek irakasle gelara joan eta egin zuen ekintza berri bat besteoi bideo baten bidez erakustea. Gainerakoek zer egin zuen ikusi zuten, eta irakaslea zein gustura zegoen ere bai. Gelatik marmarrean atera beharrean pozik atera zen. Eta horrek kutsatu egiten du, bai”.

Edonola ere, ezin da saiatu denak maila berean egoten. Irakasle guztiek ez dituzte programazio berak eta berrikuntza maila bera. Homogeneitate hori ez da existitzen. “Ikasleen aniztasuna, gizarteko aniztasuna... darabilgu ahoz aho, eta ahaztu egiten zaigu irakasle taldea ere anitza dela, gainerako taldeak bezalaxe”, dio Extremianak. “Hor-taz, erritmo desberdinak errespetatu eta irakasleei lagundu egin behar zaie. Ikasle bat frustratu egin daiteke ez duelako ulertzen; bada, irakasle bat ere beldurtu egin daiteke aldaketaren aurrean eta agian horretagatik ez da hasi. Ez da ezer gertatzen. Hasiko da argiago ikusten duenean”.

Irakasleen formazioa zaintzearekin batera, irakasleen arteko bizikidetzaren positiboa eta giroa ere asko mimatzen dute. “Zuzendaritza taldearen helburuetako bat da irakasleak ahalik eta ondoen zaintzea. Gainezkarik ez egitea, lanez ez itotzea, gogotsu egotea”, dio Agirrezabalek. “Beti esaten dugu baso bat erretzea hamar minutuko kontua dela, eta hori errekueratzea, berriz, gutxienez hamar urtetik gorako lana. Klaustro bat erretzea ere oso erraza da. Eta behin erreta, nik ez dakit nola errekueratzen den. Horregatik, horrekin kontu handiarekin ibiltzen gara”.

Aldaketak hor daude, eta ikastetxe bietako arduradunak pozik daude. “Nik uste dut sakon-sakonean denok ikusten genuela eskola gutxi aldatu zela munduarekin alderatuta” ondorioztatzen du Extremianak. “Autoak ikaragarri aldatu dira, medikuntza ere bai, gaur egun ez da duela 30 urte bezalako ebakuntzarik egiten. Teknologia izugarri eragiten du; ez da gauza bera ordenagailu eramangarriak eduki edo ez. Internetek aukera asko ireki ditu. Geletatik kalera atera behar da. Horregatik, eskolak ere aldatu beharra zeukan edo dauka, nahiz eta jakin aldaketa asko direla eta berrikuntzaren erritmoa zorabiagarria”. Horrekin batera, uste du gizarteak ez dakiela eskolan zer gertatzen ari den, zer aldatzen ari den. Ikasleek askoz gehiago parte hartzen dute. Irakasleak gusturago daude lan egiteko modu honekin. Gero eta garbiago dute prozesua garrantzitsuagoa dela emaitza baino. Norberak berea ematen du eta horrekin denok hazten eta heltzen gara. “Eskola oso dibertigarria da. Izugarri gustatzen zait” dio bukatzeko hezkuntzan 36 urte daramatzen eta nekerik antzematen ez zaion Bilboko ikastetxeko zuzendariak.



Argazkiak: Txema Gartzia-Urbina

“Isolatutako irakasleak ez du funtzionatzen. Talde-lana nahitaezkoa da. Hil da irakaslea; gora irakasle-taldea.”

# ELKARRIZKETA: FRANCESC IMBERNON

---

## BARTZELONAKO UNIBERTSITATEKO KATEDRADUNA

Irakasleen egiteko zail baina atseginaz mintzatu zen Francesc Imbernón Ikastolen Elkarteak martxoan antolatutako jardunaldi pedagogikoetan. Bartzelonako Unibertsitateko katedraduna da eta ibilbide luzea du egina hezkuntzan; besteak beste Grao argitaletxea sortu zuen eta Escola Nova 21eko kide da. Eskola askotatik pasa da aholkulari gisa eta “irakasleen DNA” oso ongi ezagutzen duela dio. Eskola berritzeko gakoak

zein diren argi du: aldaketaren unitatea ikastetxea da; proiektuak elkarrekin egin behar dira; komunikazioa, partaidetza eta tolerantzia profesionalean oinarritu behar da; irakasleek ahaldundu egin behar dute, aldaketak egiteko eta ezagutza pedagogikoa sortzeko gai direla sinetsi; metodologiak aldatu behar dira; denetaz hitz egin behar da; eta komunitatearekin eta eragileekin bat egin behar da benetan hezkuntza osoa izatea nahi badugu.



**Eskola zaharrituta dagoela entzuten da azkenaldian behin eta berriz. Zer iritzi duzu? Zerk ez du funtzionatzen?**

Bai, egia da, oraindik Ilustrazio garaiko kulturari bizi gara. Garai hartan neska-mutilak industrializazioarako prestatu behar ziren, eskulana behar zen. Sortu ziren eskola guztiak berdin-berdinak ziren: pasillo berberak, gela berberak, eraikin berberak... Ez zegoen testuingururik; denek liburu berberak irakurtzen zituzten eta lan berberak egin. Irakaskuntza sinplea zen eta ez anitza, homogenea. Haurrak adinaren arabera antolatuta zituzten eta gaur egun badakigu horrek sortzen duen homogeneitateak ez duela funtzionatzen. Izutu egiten nau gaur egun oraindik umeak adinen arabera antolatuta ikusteak. Hainbat gaitarako berdin du, antzeko errealtatea dute ikasleek eta talde homogeneotan egon daitezke, natur eta gizarte gaitan adibidez; baina matematikan eta hizkuntzan ez, eta hori badakigu.

Orduan haurrak objektutat hartzen ziren, eta gaur egun haurra erdigunean jartzen da eta harremanari ematen zaio garrantzia. Horrek

irakaslearen rola aldatzea dakar. Lehen 1. mailako irakasleak zeuden; 'ikasleak onak eta txarrak dira' pentsatzen zutenak. Gaur egun 3. mailako irakasleak behar dira; ikasleak subjektu dira, eurak dira egiten dutenak eta irakasleak laguntzen egon behar du. Aldaketa hori garrantzitsua da, oraindik 1. mailan dauden irakasleak baitaude eta horrek ez baitu funtzionatzen. XXI. mendean 3. mailakoak behar ditugu.

Horrez gain, badugu beste arazo garrantzitsu bat ere: sozializatzeko instantziak aldatu egin dira. Lehen familia, ateneoa, eliza... ziren sozializatzeko lekuak eta horiek desegin egin dira. Ondorioz, familiarenak eta talde horienak behar luketen gai asko eskolaren eta hezkuntzaren gain jartzen dira gaur egun.

Bada beste elementu interesgarri bat ere: lehen gu eta komunitatea bat ginen, tren berean gindoazen. Gaur egun koherentzia hori apurtu egin da. Gu kompetentzia eta balio batzuk defendatzen saiatzen gara, eta batzuetan komunitateak, edo telebistak, beste balio batzuk defendatzen ditu. Beraz, testuinguruaren eraginaren arazoa daukagu.

Ondorioz, erronka berriak ezin dira soluzio zaharrekin konpondu.

**Irtenbide berriak behar ditugu, beraz. Zer proposatzen duzu?**

Nik dena berrogeialdian jartzea proposatzen dut: desikasi dezagun ikasi dugun guztia. Jar dezagun zalantza mugiezina dirudien guztia: Bigarren Hezkuntzan 50 minutuko saioak? Zergatik? Beti horrela egin delako? Baina ez du funtzionatzen eta! Beti horrela egin da eta kito? Medikuek batekin operatzea bezala da hori.

Geure mugetatik ateratzeko ahalegina egin behar dugu: ideia berrietara ireki, bide berrietan murgildu, ikertu, hausnartu eta denon artean bilatu aurrerapena mundu konplexu honetan. Ezezagunari, gauza berriei eta aldaketei beldurra galdu behar diegu. Jada ezarrita dauden ideia eta proposamenetan itsu-itsuan sinesteari utzi behar diegu.

Jar ditzagun zalantza egiten dugun irakaskuntza mota, printzipioak eta helburuak, berrasmatu ditzagun metodologiak, alda dezagun antolaketa, alda ditzagun ikasleekiko harremanak, har ditzagun kontuan

emozioak, eduki curricularrak eta irakasleen ereduak. Hitz batean esanda: alda dezagun hezkuntza pentsatzeko modua. Ikus dezagun zer den funtzionatzen ez duena eta egin ditzagun galdera berriak: zer egingo zenuke aurrean dituzunak zure seme-alabak balira? Gauza bera egingo al zenuke?

Galdera horietatik abiatuta, hainbat arlo ditugu aldatzeko, eta niretzat funtsezkoak dira irakasleria, eskola bera eta haren proiektua eta komunitatea.

### **Irakasleria da aldaketaren giltzarrietako bat. Nondik hasi aldatzen?**

Benetan aldaketaren motorra irakasleria da, bai, baina aldaketaren unitatea ikastetxea da, ez irakaslea. Geroxeago hitz egingo dugu eskolaz.

Orain, irakaslearekin hasteko, buruan sartuta eduki behar dugu berrikuntza prozesuetan irakasleek zer zeregin duten zentroetan. Ez dugu ezer lortuko irakaslea ez badugu gai ikusten ezagutza pedagogikoa sortzeko.

Beti ari gara galdetzen zer dioten unibertsitateak, ikuskaritzak, zuzendaritzak, enpresak... Eta zuk, irakasle horrek? Zer diozu zuk? Zeren zu zara zure arazoak bizitzen ari dena. Gogaitu egiten nau hezkuntza-administrazioaren argibideen ez dakit zenbatgarren orrian halako esaten dela entzuteak. Esan dezala esan behar duena, ikusiko dugu guk zer erabakitzen dugun. Egia da legeak bete behar ditugula, baina zer diogu guk? Zeren batzuetan guretzat garrantzitsuak ez diren gauzak inposatzen dizkigute. Espainiako estatuan hezkuntza da araudi gehien duen lanbidea. Medikuek eta abokatuek gutxiago dute. Guri dena arautzen digute. Administrazio guztiek dituzte hezkuntza eta formazio sailak. Medikuek badituzte? Ez. Abokatuek? Ezta ere. Eta guri dena kontrolatu behar digute! Zer gertatzen da? Ez al gara beste profesionalak bezala gu ere profesionalak? Utz diezagutela lan egiten!

Hori garbi eduki behar dugu eta sinetsi egin behar dugu. Beste lanbideetan bezala, identitate propioa

geure egin behar dugu: ezagutza (ez irakaskuntza) sortzera dedikatzen garen irakasleak gara. Identitate pedagogikoa daukagu. Molestatu egiten dit irakasleek hori argi ez ikusteak. Beste lanbideen mende sentitzen dira: gobernuak, pedagogoak, unibertsitateko adituak... eta irakasleak eurak ez dira ezagutzaren profesional sentitzen, identitate propioarekin eta irakasle gisa duten esperientziarekin, zeinak ikasteko balio dieten.

Horregatik diot irakasleek ahaldundu egin behar dutela, gainerako profesionalak egiten duten moduan. Ahaldundu zure lanean, zure lankideekin gauza garrantzitsuak egiteko gai zara. Ez itxaron besteek zer egin behar duzun esatera. Irakasleak ahaldunduz ez dituen zuzendari batek ez du balio, ez du funtzionatzen, XVIII. mendean bezala ari da lanean.

Irakasleok gure lankideekin batera ahaldundu behar dugu: zu, irakasle, gai zara zure lankideekin batera ezagutza pedagogikoa sortzeko. Ez dugu ezer egingo ahaldunduz ez bagara, lankideen artean ezagutza pedagogikoa sortzeko gai ez bagara. Ezagutza hori sortzea elkarrekin aldatetako eta berrikuntzak egitea da. Unibertsitatekoek eta hizlariak lagundu dezakete, noski, baina zu zara ezagutza pedagogikoa sortzen duena eta zu zara, zure lankideekin batera, aldaketaren protagonista.

### **Zerk lagun dezake ahaldunduz horretan?**

Alde batetik, irakasleok denetaz hitz egiteak lagundu dezake. Harritu egin nintzen eskola oso berritzaile bateko irakasle batek esan zidanarekin. Denak estresatuta ziruditen eta zer gertatzen zen galdetu nien. “Ez daukagu gure seme-alabetaz hitz egiteko astirik!”. Deigarri gertatu zitzaidan. Horregatik diot denetaz hitz egin behar dugula. Formazio paraleloa deritzo horri: nola zaudete, zer gertatzen zaizu, nola daude zure seme-alabak, bilobak... Eta irakasleen arteko harremanean oso garrantzitsua da hori; denetaz hitz egitea, komunikazioa.

Beste alderdi bat: ez egitea proiektu-

“Aldaketaren motorra irakasleria da; aldaketaren unitatea ikastetxea”

“Desikasi dezagun ikasi dugun guztia. Jar dezagun zalantzan mugiezina dirudiena. Geure mugetatik ateratzeko ahalegina egin behar dugu: ideia berrietara ireki, bide berrietan murgildu, ikertu, hausnartu eta denon artean bilatu aurrerapena mundu konplexu honetan. Puska dezagun erabat eskolako egitura”

“Ikastetxe batean tolerantzia profesionalik ez badago ezin da lanik egin. Ezin dugu elkarrekin lanik egin elkar onartzen ez badugu”



tu asko, ezezkoa esatea. Hobe gauza gutxi eta ondo eginak, asko eta gaizki eginak baino.

Beste ideia bat: hezkuntzan, zuek eta nik, ez daukagu arazorik, egoera gatazkatsuak baizik. Nik hitzaldietan soluzio orokorrak ematen ditut. Baina irakasleek, eskola barruan, arazo zehatzak dituzte, ez arazo orokorrak. Irakasleak pentsamendu praktikoa dauka, hezkuntzan lan egiten du, beraz, egoera gatazkatsuak dauden zentroetan. Hortaz, ahal den formazio gutxiena egitea komeni da, eta egiten dena zentroan bertan egitea, hor daudelako egoera gatazkatsuak. Bestela, igerilariaren metaforarena egiten dugu: *power point*-aren bidez saiatu igeri egiten ikasten. Formazio orokorrak papearak gehitzen ditu, irakasleen curriculum, baina horrek ez du berrikuntzarik ekartzen. Gainera, formazioak irakasleen beharretatik abiatuta antolatu behar dira. Horregatik dago formazio asko eta aldaketa gutxi.

Eta, noski, irakasleen gaur egungo DNA aldatzeak ere lagunduko luke ahalduntze horretan, DNA hori baita bere lanbidea lanbide subsidiariotzat hartzen duena.

### **Zeri deitzen diozu “irakasleen DNA”?**

Irakasle Eskoletan jasotzen dugun formazioaren ondoren sortzen den irakasle ereduia izango litzateke. Irakasleen formazioa, ezaugarriak eta hautematea, beste modu batera esanda. Gaur egun, lehen aipatu dudan bezala, beste batzuen mendeko lanbidetzat hartzen da. Administrazioak, enpresak, ikuskaritzak, zuzendaritzak... esaten dutenaren mendeko.

### **Zein ezaugarriekin osatuko zenuke DNA berri bat?**

Irakasle baten oinarrizko ezaugarriak jarrera, esperientzia, kultura eta ezagutza dira. Eta hori sartu beharra dago DNAn. Jarreran, ikasleekiko harremana garrantzitsua da, nola jokatu eurekin. Esperientziak aukera ematen du egiten duzunaren gainean pentsatzeko. Bizi dugun kultura eta testuingurua ikasleei erakustea ere garrantzitsua da. Eta noski, irakatsi beharreko gaia ezagutzea ere bai.

Beraz, hasteko, Irakasle Eskoletako formazioa aldatuko nuke. Metodologikoki formazio egokia jasotzen dutela dirudien arren, ez da

hala. Lehenengo pedagogia ikasten dute, gero psikologia, gero didaktika espezifikoak, eta gero praktikak egiten dituzte. Urteak dira horrek ez duela funtzionatzen. DNA horrek, behin eskolara iritsitakoan, gauza berberak egitera daramatza: azaldu, lan egin, azaldu, lan egin... Eta benetan gehitu behar direnak beste gauza batzuk dira: elkarlana, talde-lana, errealitatearen azterketa...

Nire ustez, badago irakaslearen DNAn egon behar duen beste elementu oso garrantzitsu bat: kultura izatea, kultura. Irakasleak pertsona kultura izan behar du, testuingurua jakitun dena. Gai izan behar du testuingurutik gauzak atera eta aldatzeko, ez testuliburutik soilik. Irakasle kultuak ez du testulibururik erabiltzen. Kultura ez den irakasle bat erreproduzitu baino egiten ez duen irakasle bat da. Zer egiten du? Besteek esaten dutenetik kopiatu. Eta nondik kopiatzen du? Testuliburutik.

Esperientziarena da beste gai bat: esperientzia praktikaren gaineko hausnarketa bihurtzeko gai izan behar du irakasleak, bakarka edo lankideekin. Askok hitz egiten da

praktikaren gainean hausnartzeaz, baina ez dira hausnartzeko erremintak ematen. Ideia hau ere sartu behar da DNAn.

Horretarako funtsezkoa da formazioa aldatzea. Mediku eta erizainek ba al dute DNArik? Noski baietz, osasunaren kultura. Eta abokatuek berdin. Irakasleok ere badugu geure kultura. Aldakorra izan behar du XXI. menderako, ezin zaie ikasleei iraganean bezala irakatsi: egitura hierarkikoekin, praktikaren gaineko hausnarketarik gabe... Nik beti esaten dut Irakasle Eskoletako formazioak praktika teorikoan oinarritu behar duela, hau da, praktikak teoriak hausnartzeko aukera eman behar digula. Eta oraindik teoria eta praktika banatuta jarraitzen dugu.

### **DNA aldatzeko Irakasle Eskolek aldatu egin beharko lukete, orduan.**

Noski, DNA berri hori Irakasle Eskoletan landu behar da. Nik beti defendatu izan dut Irakasle Eskolek kultura gune bat izan behar dutela. Irakasle Eskolak fakultate bilakatu zirenean gauza batzuk irabazi egin ziren eta beste batzuk galdu. Aldekoa izan zen irakasleek ikertzeko aukera izatea, maila altuagoa izatea... Baina Irakasle Eskoletako kultura galdu egin zen. Lehen musika kontzertuak edo poesia emanaldiak egiten ziren, poetak nahiz idazleak ekartzen ziren eta hori egin beharko litzateke orain ere: DNA kultural bat sartu buruan irakasleei. Horrek pertsona hobeak egiten laguntzen die eta hori da gero ikasleei transmititzen diena. Garrantzitsuena pertsona da. Ume bati balioko dio matematika asko jakiteak, baina askoz gehiago balioko dio pertsona izateak. Horrek balioko dio bere bizitzan. Demokrazia, elkartasuna, berdintasuna, beste modu batera pentsatzea... hori ez da aintzat hartzen batzuetan eta ez luke horrela izan behar. Edukiak lan-tzerakoan metodologia ere kontuan hartu beharko litzateke. Bestela, ikasleek azterketa bat egin dezakete, baina modu zehatz batean lan egiteko aukera galdu bada, gero zaila da erreperatzea. Edukiak eta metodologiak elkarri egokituta egon behar dute.

### **Zein traba ikusten dituzu irakasleen eguneroko jardunean? Nola hobetuko zenituzke?**

Hasteko, gaur egun badakigu giza-kiak ez duela ezagutzaren ahozko transmisioaren bitartez ikasten, baizik eta ezagutza eraikiz. Gaur egun ikasleak entzun eta ahaztu egiten du; egin eta ulertu; esplikatatu eta ikasi. Aldaketa egin beharrean gaude: informaziotik konpententzia eta ezagutzara pasa. Beraz, ez dezagun hainbeste hitz egin. Bi belarri eta aho bat ditugu. Zertarako? Gehiago entzuteko eta gutxiago hitz egiteko.

Bigarrenik, *balkanizazioa*. Irakasleen artean sortzen diren gerra txikiei deitzen zaie eta ez dakigu zergatik sortzen diren: ez naiz joango horrekin kafea hartzera ez didalako hitz egiten, nik ez dut hori egingo... elkarren kontra borrokan eta ez dakigu zergatik. “Begizuloak dauzkazu” “Gizendu egin zara”, eta atseginak ez diren horrelako hitzek ere kafea batzuekin hartzera eta beste batzuekin ez hartzera bultzatzen dute. Eta hori saihestu egin behar dugu. Eskola balkanizatuta baldin badago, zentroa suntsitu egiten da. Ikasleak hezteko balkanizazioak ekidin behar ditugu. Eta hori tolerantziarekin lortzen da.

Beste fenomeno bat bosgarren zutabea deritzona da: isilpean baiezkoa esaten dute, baina gero pasilloan “zer uste du horrek, ba nik ez dut egingo!” esanez hasten dira. Gerretan bosgarren zutabea etsaierengana kutsatzera bidaltzen direnei deitzen zaie. Bosgarren zutabea oso arriskutsua da eskolan. Beraz, diagnostikatzen eta ikusarazten jakin behar da: “denon artean ahalegintzen saiatuko gara”.

### **Horren sendagai modura aipatu duzu tolerantzia profesionala.**

Ikastetxe batean tolerantzia profesionalik ez badago ezin dela lanik egin deskubritu dugu. Ezin dugu elkarrekin lanik egin elkar onartzen ez badugu. Irakasle bakoitzak bere arazoak ditu eta hainbeste ordu elkarrekin pasata, normala da gainerako lankideengan eragitea. Horregatik, tolerantzia profesionala aplikatu behar da horrelako kasuetan.

“Irakasleak pertsona kultura izan behar du, testuinguruaren jakitun dena. Gai izan behar du testuingurutik gauzak atera eta aldatzeko, ez testuliburuetatik soilik. Irakasle kultura ez du testulibururik erabiltzen”

“Beti ari gara galdetzen zer dioen unibertsitateak, ikuskaritzak, zuzendaritzak... Eta guk, irakasleok? Zer diogu? Ezagutza sortzera dedikatzen garen irakasleak gara. Identitate pedagogikoa daukagu. Molestatu egiten dit irakasleek hori argi ez ikusteak. Horregatik diot irakasleok geure lankideekin batera ahaldundu egin behar dugula: zu, irakasle, gai zara zure lankideekin batera ezagutza pedagogikoa sortzeko”



Gainera, ikasleei hori erakusten ari bagara, guk geuk egin behar dugu lehenengo. Denok gara arraroak, denok zahartzen gara, denok ditugu arazoak, denok desberdinak gara. Ez al dugu hori ikasten ikasleekin? Bada, aplika dezagun geure buruarengan. Tolerantzia profesionala funtsezkoa da.

Geure lanbidearen gaineko hausnarketa egin behar dugu. Elkarrekin lan gehiago egiten ikasi behar da, partekatzen. Elkarrekin pentsatu, horrek ezagutza baitakar. Elkarrekin erlazionatu, sentitu, emozioak landu lankideekin, ikasleekin, gurasoekin; horri kontaktua deritzo. Eta ekin, aldaketari ekin, konpromisoz. Garrantzitsuak gara. Herrialdeko garrantzitsuenak gara, nahiz eta ez duten sinesten eta tratu txarrak jasaten ditugun. Baina, printzipioz, Jovellanosen Espainiako Errepublika garaian zihoen moduan: "Irakaslea da Errepublikako lehen herritarra".

Irakasle batentzat irakaslerik onena beste irakasle bat da. Eta ez onena

bakarrik, batzuetan baita bakarra ere. Badakit esajeratzen ari naizela, baina salbatzen baldin bagara, denok salbatuko gara. Edo bestela, denok batera hondoratuko gara.

Indibidualismoaren aurka borrokatu behar da. Hil da irakaslea; gora irakasle-taldea! Bakarrik gelditzen den irakaslea, nazkatuta bakarrik hilko da. Gaur egun, XXI. mendean, isolatutako irakasleak ez du funtzionatzen. Toreroaren eredua da, 'utzidazu bakarrik', eta ez du funtzionatzen. Eskola ez da norbanakoa, irakaslea talde bateko kide da. Horrek salbatuko du lanbide hau XXI. mendean. Talde-lana nahi-taetzkoa da.

**Talde finkoa eta konfiantzazko klaustroa edukitzeak horretan lagun dezake. Baina hainbat eskolatan hori ez dago bermatuta oraindik.**

Hala da, bai, eskola publikoan dagoen arazoa da. Azken batean, legearen sarrerak dio taldean egin behar dugula lan, denon arteko

proiektuekin... Eta gero, urtero irakasle erdiak aldatzen dira. Horrela ezin da.

Halere, oraingo joera, baita publikoan ere, beste bat da: lan taldeak sortzea, hau da, zuzendariak edo kudeatzaileek euren proiekturako langileak aukeratzea. Profil bat eskatzen dute eta profil hori duten irakasleak elkarrizketatzen dituzte, euren proiekturako egokiak direnak, alegia. Nazioarteko joera bat da eta iristen ari da hona ere.

Edonola ere, hemen konplikatua da sindikatuak direla-eta. Eredu hori kritikatzeko dute zerrendei muzin egiten zaiela esanda. Bai, hala izan daiteke, baina behintzat hautatzen diren horiek proiektuan parte hartuko dutela bermatzen da. Zeren zerrenden kasuan, batzuetan zentro berri batera iristen diren funtzionarioek ez dute ezer jakin nahi izaten eskola horretako proiektuarekin. Gelara sartu eta testuliburua hartzen dute. Kontxo, ez da ba hori nahi duguna.

**Hasieran esan duzu irakaslea dela aldaketaren motorra eta eskola, berriz, aldaketaren unitatea. Zer aldatu beharko litzateke eskolako egiturari eta antolaketari?**

Irakaslearekin batera, lan egiten duen testuingurua edo lekua aldatu behar dugu, eskola, alegia. Zeren, eskola kartzela edo eroetxe bat bezala baldin badaukagu, gaizki. Lehenengo kultura bera jasoko dugu.

Badago funtsezko aldaketa bat: eskola, irakaskuntza-espazio izatetik ikasketa-espazio izatera pasatzen ari da. Eta horrek irakaslearen lan egiteko modua aldatzea dakar, noski. Irakaskuntza-espazioak behar dira, baina ez horiek bakarrik, baita ikasketa-espazioak ere. Lehenengoan erakutsi egiten da. Bigarrenean ezagutza eraiki egiten da. Eta hori garrantzitsua da, hori baita azken helburua. Gaur egun, XXI. mendean, badakigu gure ikasleek nola ikasten duten, gure burmuinak nola ikasten duen. Beraz, ez ditzagun betiko gauzak errepikatu. Gainera, guk geronek badakigu zaborrezko zenbat ikasketa eduki dugun gure bizitzan zehar.



Beraz, aldaketa metodologikoa eta antolaketa-aldaketa funtsezko urratsak dira esan dugun gutzia martxan jartzeko. Zein metodologia erabiltzen dugu? Nola antolatzen gara, XIX. mendean bezala? Nolako komunikazioa dago gure artean? Mintegietan eta zikloetan antolatu jarraitzen dugu nahiz eta jakin zaharkituta daudela? Edo edukien, lanen edo bilerako gaien arabera antolatzen gara? Gela barruan irakasle bakarraren ordez bi edo hiru sartzen al dira? Ikasleak batetik bestera mugi al daitezke? Egitura puskatu egiten da, erabat. Berrikuntzak hori eskatzen du; gela batean bi edo hiru irakasle jardutea adin desberdinetako hurrekin, espazio handietan, lan txokoekin, pasilloekin, ordenagailuekin...

Horrek guztiak denbora eskatzen du, baina oso atsegina da. Lan gehiago egin behar da, baina atsegina da, eta ez gelara joan, liburua hartu, 40. orrialdean ireki, 4., 5. eta 6. ariketak egin, arbelean zuzendu, patiora irten, zer ordu den begiratu... Hori ez da batere atsegina.

### **Gaur egungo metodologia berri batzuk aipa ditzakezu?**

Berdinen arteko ikaskuntzaz hitz egiten da gaur egun, edo beste modu batera esanda, formazio horizontalaz. Eta esperientzia interesgarriak badaude. Esate baterako, *lesson study*. Japonetik datorren moda da. Hiru irakaslek gai bat elkarrekin prestatzen dute. Batek eskola ematen du eta beste biek behatu egiten dute. Gero, nola joan den eztabaiatzen dute. Akatsak egon badira, berriro planifikatu eta egiten dute gaia zehaztuta gelditu arte. Ongi funtzionatzen ari den estrategia da. Elkarlana eta hausnarketa handia eskatzen ditu.

Beste metodologia bat alderantzizko gelarena da. Batez ere DBHn erabiltzen da. Gelatik kanpo egiteko lana ematean datza. *Socratif* izeneko programa informatiko bat dago, gazteei izugarri gustatzen zaiena. Ikasleei etxean landu dutenari buruzko galdera batzuk egiten zaizkie, esteka bidaltzen zaie, ikasleek erantzun egiten dute eta programak irakas-

learen mugikorrera bidaltzen ditu erantzun zuzenak Excel-en. Akatsak ikusteko aukera ere ematen du. Hau da azken modan dagoena.

Legorekin lan egitea ere oso interresgarria da. Hezkuntzan lantzeko Legoko maletak daude. Pauso metodologiko batzuk zehaztuta daude, taldean lan egiten dute eta gauzak eraikitzen dituzte. Adibidez, naturaren inguruko eraikuntza bat egiten dute eta gero azaldu egiten dute.

Badaude gehiago ere: proiektua lan egitea, gamifikazioa, Kahoo...

Gauza da teknologia berriak ikasleko erabiltzea, azken finean. Gauza berri horiekin hasi behar duzue, hori baita ikasleei gustatzen zaiena. XXI. mendean gaude eta motibatu egin behar ditugu, ez aspertu.

### **Zein ezaugarri eduki behar ditu proiektu berritzaile batek?**

Aldaketarako eskola proiektu batek lau ezaugarri eduki behar ditu:

- 1- Eskolakoa bertakoa izan behar du, bertan eginga (edo eskola talde batekoa, antzeko arazoak badituzte).
- 2- Irakasleek sentitutako beharretatik abiatu behar du, ez enpresaren, administrazioaren edo tokatzen den politikoaren arazoetatik. Hori artifiziala da.
- 3- Eskola ez da norbanakoa, irakaslea talde bateko kide da. Lan-kidetza.
- 4- Irakasleek prozesu osoan hartu behar dute parte eta horrekin ahaldundu.

### **Zer-nolako harremana du eskola berritzaileak komunitatearekin, testuinguruarekin?**

Arlo honetan bi kontzeptu aipatuko nituzke: hezkuntza hedatua eta hezkuntza konplizitatea.

Ikasleek eskola barruan zein kanpoan ikasten dute. Bukatu da eskolako irakaslea. Irakasleak komunitatearena izan behar du. Testuingurukoa. Testuingurua funtsezkoa da. Erdi-goi mailako eskola batean lan egiten baldin badugu, ez dago arazorik. Baina bazterketa sozial handia dagoen eskoletan arazo handia dago: pobrezia, miseria, langabezia, jendea desesperatuta, guraso bakarrak... Komunitateak

lehen baino gehiago erakartzen ditu gazteak: lagunak, drogak, alkohola... Hori erakargarriagoa da eskola aspergarria baino, eta gazte askok ikasketak utz di-tzakete. Beraz, komunitatearekin bat egiten dugu edo gazte asko galduko ditugu.

Non daude gazteak kalean dabil-tzanean? Zer jarduera egiten dituzte eskolaz kanpo? Zer-nolako balioak eta heziketa lantzen dira horietan? Zer egiten dugu udalarekin? Hirigintza oso garrantzitsua da. Esate baterako, auzo behartsu edo gatazkatsu batean plaza bat berritzen baldin bada, aiton-amonak eta umeak hasten baldin badira joaten horra... giroa aldatu egiten da, zenbait delinkuentzia eta arazo desagertu egiten dira. Eta hori oso garrantzitsua da gure heziketa zereginen. Eragile horiekin guztiekin bat egin behar dugu gure hezkuntza benetan hezkuntza osoa izatea nahi badugu. Hezkuntza konplizitatea deritzo honi.

Atsotitz afrikar batek hala zioen: hezteko tribua behar da. Afrikan tribua zeukaten, egonkortuta zeudelako eta koherenteak zirelako. Gure kasuan ez. Guk ez dugu tribu bat behar, tribu on bat baizik.

### **Horrek, edukiez gain, beste alderdi asko lantzea eskatzen du.**

Bai, eskola-gizartea harremana birpentsatu behar da. Zer da XXI. mendean hezteak? Gai garrantzitsuak aipatu ditugu: emozioen kudeaketa, sormena, elkarbizitza, hiritartasuna... Gaur egun zenbait autorek dio matematika, hizkuntza edo gizarte gaiak Interneten ikas ditzaketa ikasleek, baina hiritartasuna, elkartasuna, lankidetzeta, parekidetasuna... horiek guk erakutsi behar dizkiegula, ez baitituzte sarean inoiz topatuko.

Zer lortu nahi dugu hezkuntzarekin? Ikasleei adimen soziala ematea: errealitatea ulertzeko, arrazoitzeko eta gertaeren eta ingurunearen irakurketa kritikoa egiteko erremintak eskaintzea (sozialak, pentsakorrak, aukerazkoak...). Eta baita eduki sendoak ere. Horretarako, irudimena behar dugu, irudimen handia.

# EKARPENAK 1

EHU-KO INKLUNI TALDEA

## Gaixotasun arraroak dituzten ikasleen inklusioa ardatz

‘Ezohiko gaixotasunak dituzten ikasleak eta eskola inklusiboa’ ikerketa lana kaleratu du EHUko Inkluni taldeak. Ohikoak ez diren gaixotasunak dituzten haur eta nerabeen eta haien senitartekoen lekukotasunak jaso dituzte bertan, haien eskolatzearekin loturiko arrakastarako gakoak identifikatzeko xedez.

ikasle guztientzat egokiak izango diren hezkuntza-praktikak diseinatzea eta esklusio-egoerak saihestea izan du helburu nagusi EHUko Inkluni taldeak egin duen “Ezohiko gaixotasunak dituzten ikasleak eta eskola inklusiboa” izeneko ikerlanak. FEDERek (Gaixotasun Arraroen Espainiako Federazioa) EAEn duen delegazioak eskatuta abiatu zuten ikerketa, berezitasun nabarmen batekin: gaixotasun arraroak dituzten pertsonen eta haien senitartekoen testigantzak jasotzea. “Beste

zenbait ikerketarekin alderatuta gure lanaren berezitasun nagusia kaltetutako pertsonen ahotsak jasotzea izan da. Ez horrenbeste ahulguneak edo hutsuneak nabarmentzeko, baizik eta gaixotasun arraroak dituzten ikasleen inklusiorako egon daitezkeen alderdi positiboak jasotzeko”, argitzen du Naiara Berasategi Inkluni taldeko ikerlariak.

Aniztasunari erantzutea da eskola inklusiboaren lehen egitekoa Inkluni taldeko kideen esanetan; eta, horrekin batera, arreta berezia jartzea baztertuak izateko arriskua duten ikasleei. Igone Arostegi Inkluniko beste ikerlarietako batek zehazten duen eran, kontua ez da aniztasuna duten pertsonak egokitzea ingurunera, baizik eta alderantzizkoa: testuingurua edo eskola egokitzea gelako pertsona bakoitzera eta aniztasun osoari erantzuna ematea. “Orain 10-15 urte aniztasuna zuten pertsonak eskolan hartzearekin nahikoa zen, baina orain ez gara horrekin konformatzen. Presentzia eskatzen dugu, noski, baina baita pertsona horien parte-hartzea ere, eta are gehiago: ikasle horiek ere arrakasta edukitzea nahi dugu”.

### Hamaika ahots

Ruth Garcia eta Erlantz Bilbaok garbi dute eskolan ikasi ahal izateko gako nagusia ondo sentitzea dela. Hain zuzen ere, giro onak eta gustura sen-

titzeak asko egiten du gero ikasi ahal izateko, funtsean eskolaren egitekoa denei ikasteko aukera hori bermatzea baita.

“Matematika, euskara, historia... bai, noski, garrantzitsuak dira. Baina hori bezain garrantzitsua da giza tresbetasun batzuk hartzea, harreman osasuntsuak eraikitzeke gai izatea, pertsona izaten ikastea...”, Bilbaoren hitzak dira. Ondo daki gaixotasun arraro baten ondorioz bazterketa eta bakardadea bizitzea zer den. Ildo berean mintzo da Garcia ere: “Lehen ez nuen lagunik, eta horixe da faltan gehien sumatzen nuen: eskolan lagunarte bat edukitzea”.

Hain zuzen ere, ikerketan ondorioztatu dutenez, benetako inklusioa gerta dadin berdinaren arteko erlazioak zaintzea eta gelakideen artean harreman onak sustatzea funtsezkoa da. Interakzioaren premiaz mintzo dira Berasategi eta Arostegi, eta horrekin batera, metodologia kolaboratiboak eta kooperatiboak erabiltzea hobesten dute: “Gelaren antolaketari dagokionez, metodologia kolaboratiboak erabiltzea eta elkarrekintza sustatzea garrantzitsua da inklusioa gerta dadin. Denok ditugu gure beharrak, era batekoak ez bada besteak eta elkar lagun dezakegu”.

### Entzuten dakien irakaslea

Gaixotasun arraroak dituzten ikasleek eskolan ondo hartuta sentitzeko balo-



Ezkerretik eskuinera: Ruth Garcia, Erlantz Bilbao, Naiara Berasategi eta Igone Arostegi.

ratzen dituzten hainbat gako nabarmentzen ditu Inkluni taldeak egindako ikerketak. “Zer ezaugarri izan ditu zuen inklusioan lagundu duen irakasleak?” galdetuta, entzuten jakiteko gaitasuna izan da Garciak eta Bilbaok bezala, ikerketan parte hartutako ikasleek nabarmendu duten ezaugarrietako bat. Eta, horrekin batera, bere lana gustuko izatea: “Nik gogoko nuen irakasleari nabaritzen zitzaion gustuko zuela egiten zuen lana. Irakasle lanerako ez du balio soilik asko jakiteak, horrez aparte ondo transmititzen jakin behar duzu”, argitzen du Bilbaok. Ildo berean mintzo da Garcia ere. Irakasleekiko harreman ona nabarmentzen du hark: “Derrigorrezko Hezkuntzatik Helduen Hezkuntzara (HHE) igaro nintzenez sekulako aldea nabaritu nuen nik. Oso giro ona zegoen han. Irakasleekin harremana ezinhobea zen eta horrek asko lagundu zidan aurrera egiten”.

Malgutasuna da gaixotasun arraroak dituzten eta ikerketan parte hartu duten ikasleek asko eskertzen duten beste ezaugarri bat; bereziki, lanak entregatu behar direnean edota azterketak daudenean. Izan ere, ikasle mota horiek, sarri, osasun arazoak izaten dituzte, errebisioak egin beharra, ebakuntzak... eta ezin izaten dituzte eskolak gainerako ikasleek bezala jarraitu. Horrexegatik, bai eguneroko martxa jarraitzerakoan bai ebaluazio

garia irakasleak malguak izatea asko baloratzen dute. Berari gertatutako adibide bat jartzen du Bilbaok: “Ebakuntza bat izan nuen aldi batean nire kideek azterketa bat izan zuten. Pentsatzen nuen nik ere eskolara itzuli eta hurrengo egunean azterketa egin beharko nuela, baina irakasleak astebete eman zidan azterketa ondo prestatzeko eta hori niretzat sekulakoa izan zen”.

### **Inklusioa, gero eta inportanteago**

Irakasleen artean gero eta informazio, formazio eta sentsibilitate handiagoa dago inklusioaren inguruan. Irakasle eskolan bertan, bada irakasgai bat inklusioaren oinarriak zein diren lantzerantz bideratua. Baina Arostegik nabarmentzen duenez, maila teorikoan jaso daitekeen eduki guztiaz gain, bada beste jakintza-iturri bat ere: familiak, hain zuzen. “Ez dugu ahaztu behar familiak ere hor daudela. Senitartekoen eskertu egiten dute behar dugun hori haiei galdetzea. Eskolak familiekin zubiak eraikitzea oso garrantzitsua da. Eskola inklusiorako hezkuntza-oinarriak eta estrategiak badaude. Kontua da inklusioari lehentasuna ematea eta praktikara eramatea teoriarik dagoen hori. Ikastetxe eta irakasle batzuek egiten dute, eta kasu horietan emaitzak ikusi egiten dira”. Berasategik gaineratzen duenez, Inkluni taldekoentzat klabea

da zentroak ebaluatzea eta balorazio hori egitean inklusioa ere neurtzea beste parametro batzuekin batera. “Gure ustez, ebaluatu egin behar da zentroa benetan inklusiboa den edo ez, eta inklusioan urratsak egiten dituzten ikastetxeen kalitate adierazle bat eman behar litzaieke”.

Bestalde, Arostegirentzat eta Berasategirentzat interesgarria litzateke curriculumean bertan ere ikasgai bezala lantzea aniztasunaren eta inklusioaren gaia. “Horrekin batera gelan dauden aniztasun horiek potentzia bihurtzen saiatu behar dugu. Ikasle bakoitzaren indarguneak identifikatu eta horiek potentziatu behar ditugu”. Hori bai, aniztasun horri erantzun eta ikasle bakoitzari arreta individualizatua emate aldera, gela bakoitzean irakasle bat baino gehiago egotea aldarrikatzen dute. “Irakasle bakar batek gaur egun geletan dagoen aniztasunari ezin dio ondo erantzun”, eranstean du Arostegik.

Finean, Inkluni taldeko partaideen helburua da ikasle guztiak barne hartuko dituen eskola eraikitzen laguntzea. Gaur egun eskola “batzuentzat bakarrik” dela uste dute, eta, beraz, bestelako beharrak dituzten ikasleak agertzen direnean moldaketak egin behar izaten direla. Aldiz, hasieratik “guztiontzako eskola” diseinatuz gero, ez legoke moldaketa beharrik. “Gure erronka eskola inklusiboa eraikitzea da, gero gizarte inklusiboagoa egiteko”.

# EKARPENAK 2

MATEMATIKA JOLASEAN

## Matematika irakasteko modu motibagarri bat

**B**adago, bizitzarekin eta beste arlo batzuekin lotuta, Matematika irakasteko beste metodologia bat, eta horixe erabiltzea da nire asmoa. Batzuetan, gure lana testuliburuen menpe egoten da, eta era mekanikoan baino ez dugu irakasten. Izan ere, horixe egiten dugu algoritmoen bidez (algoritmo tradizionalak) eragiketak egiten ditugunean.

Ez dut ahaztu nahi algoritmoa xede lortzeko egin beharreko hainbat urratsen multzoa dela. Beraz, emaitza bera da kontuan hartzekoa. Adibidez, gure ohetik altxatzen garenetik etxetik irten arte egiten ditugun gauza guztien multzoa da algoritmoa; eskolan, berriz, batuketa, kenketa eta horrelako eragiketetan oinarritutako estrategiak dira normalean erabiltzen ditugun algoritmoak. Irakasleok hainbat estrategia dakizkigun arren, berdin irakasten dugu ia beti. Burugogor paratzen gara algoritmo tradizionalak erabiltzean, konturatu barik energia eta ahalegin handiak xahutzen ditugula. Gainera, ikasleen motibazioa zapuzten dugu.

Heziberri Dekretuaren helburuen artean, algoritmo tradizionalak irakasteko xedez gain, maila berean daude hauek ere: curriculumeko algoritmoak, zenbatespenak, konposaketa, deskonposaketa, balio hurbila, biribiltzea edota buruko kalkulua.



**Amaia Arrojo Ormaetxe**

Irakaslea

Hala ere, azken horiek denbora gutxiagoz lantzen ditugu, segur aski, ebaluatzeko zailak direlako edo orri batean idatzita geratzen ez direlako. Gehienetan, lehentasuna ematen diegu testuinguru egokian kokatu barik dauden jardura idatziei, eta era mekanikoan irakasten ditugu. Esaterako, hainbat “bururakorekin” egin beharreko batuketaz betetako orriak era mekanikoan menperatzera behartzen ditugu umeak. **Aspergarria izateaz gain, irudimena murrizten diegu**, batez ere, ez dutelako zertan pentsatu noiz eta zertarako erabiltzeko dituzten. Horrexegatik, hobe da estrategia azkar bat erakustea, eta eragiketa bakoitzerako egoeraren bat asma dezaten bultzatzea.

Ebaluatzeko zailtasunak ekiditearren, dokumentazio grafikoak edo entzutekoak erabil genitzake, eta, horrela, aukera izango genuke **ahozko azalpenak eta adierazpena gartzeko**; izan ere, gure ezaguera kognitiboa hedatzeko, ahozko hizkuntza landu behar dugu. Ahoz adierazten dugunean, gure jakinduria garatzen dugu, eta pentsamenduari forma ematen diogu, agerian uzten ditugulako zalantzak, akatsak edo aurreiritziak.

**Algoritmo tradizionalak** ontzat hartzen ditugu, guk menperatzen ditugulako; **ez dute pentsamendua garatzen**, ordea. Umeei zenbakien esanahian eta logikan oinarrituta



dauden eragiketak irakatsi behar dizkiegu, batez ere, kontuan izanda ikasle gehienak aspertu egiten direla, Matematikaren arloan arazo larriak izateaz gain. Eta, horretarako, edozein eragiketa egin baino lehen, hobe da beti zenbakiak zer izan daitezkeen irudikatzea, jakitea zer egoeratan erabil ditzakezun, emaitzaren zenbatespena egitea aldeztu aurretik, eta, azkenik, kalkulagailuaz baiez-tatzea. Algoritmoak euren inguruko bizipenekin lotuta daudela irakatsiz gero, baliagarriak direla ere ikasiko dute. Esaterako,  $23 + 15 =$  egin baino lehen, 23 kromo genituela eta norbaitek beste 15 eman dizkigula asma dezakegu talde handian. Azkenik, emaitza ateratu baino lehen, ezinbestekoa izango da azaltzea emaitza hori 23 baino handiagoa baina 50 baino txikiagoa izango dela ere.

Badakit hori guztia erabiltzen saiatzen garela, baina, eragiketa bakoitzarekin eta ume guztiekin eginez gero, denbora luzea behar izango dugula. Gainera, asko beldurtzen gaitu programazioa ez dugula beteko pentsatzeak, estu eta larri ibiliko garela eta emaitzak ez direla espe-

ro genituenak izango uste izateak. Gainera, irakasleok ez gaude oso ondo balioetsita egungo gizartearen, eta gerta daiteke familien babesik ez izatea ere.

Hala eta guztiz, beldur horiek guztiak aldean neramatzala, LHko 1. zikloan praktikan jartzen ausartu nintzen. Ikasleek hobeto ulertzen zuten, eta adiago egoten ziren. Zeuek ere anima zaitezten, hasieratik nola egin nuen azalduko dizuet.

Lehenengo eta behin, kontuan hartu nuen irakasteko eta ikasteko prozesuaren abezea. Hau da, epe manipulatioa, grafikoa eta sinbolikoa hurrenez hurren bete behar genituen, urrats bat ere saltatu barik. Hori dela eta, manipulatzeko material eroso eta ikusgarria erabiltzen hasi nintzen:

#### **Cuisenaire erregletak edo zotzak.**

Hasieran, umei zotzak erakutsi nizkien, eta jolasten utzi nien. Oso behaketa interesgarria egin nuen: dorreak, tren luze-luzeak, askotariko marrazkiak, zotzen konparaketak taldeka nahiz bakarka... Baliagarria eta kontuan hartzekoa izan zitzaidan dena. Jolastorduan ere, zotzak erabiltzen zituzten olgatzeko.

Bigarren urratsean, aurkezpen formalagoa egin nuen. Zotzak kolore eta neurri askotakoak zirela argitu ondoren, proportzionaltasunarekin hasi nintzen. Zuriari, txikiari, “bat” zenbakia dagokiola esan eta gero, eurek asmatu zituzten besteen balioak, 1tetik 10era arte. Ondoren, hainbat jolas egin genituen: arrainena, esaterako. Poltsa baten barruan sartu nituen zotzak (1ekoak, 5ekoak eta 10ekoak), eta ikasleek, begiak itxita eta ukituz, ateratako “arrainari” zer zenbaki zegokion asmatu behar zuten. Gero, hainbat neurritako zo-



(1.a, 2.a, 3.a...)

tzak nahasi nituen.

Umeek espero nuen baino lehenago ikasi zituzten zotzen balioak eta koloreak, neuk baino arinago. Horrez gain, zotzen neurria zenbakiarekin lotuta dagoenez, hamar neurritako piezak daude, eta neurriak desberdintzen

## EKARPENAK 2: MATEMATIKA JOLASEAN

ikasten hasi ziren ariketa honetan ere. Zotz zuriak, bat baliokoak, 1 cm-ko luzera du, 1 g pisatzen du, eta 1 cm<sup>3</sup>-ko bolumena. Eta berdin gertatzen da gainerako baliokak dituzten zotzekin ere. Hori guztia kontuan hartu genuen ikasturtean zehar egin genituen jardueretan.

Hirugarren urratsean heldu zen zenbakien artean konparazioak egiteko unea. Bi batugairekin “10” zenbakia lortzeko era guztiak osatu zituzten, ohiko alfonbrak eraikiz.



Batugai bakoitza: zotz bat. Aurre-rago, hizkuntza matematiko zehatz hori erabiltzea komeni da. Premisa hauxe eman nien: zotz laranja lortu behar zuten; hau da, “hamarra” lortu behar zuten, bi zotz elkartuz. Zenbatespena ere lantzen ari ziren hurbileko balioko zotzak aukeratu behar zituztelako. Gero, *hamarra* lortu zuten ala ez egiaztatu zuten. Batzuek, egiaztatzeko, banakako zotzak bata bestearen atzean jartzen zituzten, zotz laranjaren tamaina (10ari zegokiona) izan arte, eta beste batzuek, berriz, beste konbinazio batzuk egiten zituzten, laguntzarik gabe. Bakoitzak bere erritmoa dauka ikasteko, eta, egiaztatzeko eta “sinesteko” modu asko daudenez, zotzak banan-banan ipini behar badituzte, ipin ditzatela. Gustura ikastea da helburua, eta ukituz eta biziz barneratzen dira edukiak.

Laugarren urratsean, alfonbrak lortu ahala, ordenatu eta ozen esaten hasi ziren. Grabaketa batzuk egin nituen, eta guztiek parte hartu nahi izan zuten.

Bosgarren urratsean, alfonbrak margotu eta koloreztatu zituzten orrialde batean, eta, beraz, pauso manipulati- botik grafikora pasatu ziren.

Seigarren urratsean, Haur Hezkun-

tzan ikasitako zenbaki sinbolikoak marrazki bakoitzaren alboan idatzi zituzten. Urrats sinbolikora iritsi ginen horrela, beraz.

Horrelaxe lantzen ditugu, hortaz, **urrats manipulatioa, grafikoa** eta, azkenik, **hizkuntza sinbolikoa**. Hasieran aipatu ditugu.

Batuketak bata bestearen azpian ida-

tziz gero, batuketan arteko harremana ikus eta azter daiteke; hau da, lehen zutabeko zenbakia beti aurrekoa baino handiagoa da, eta bigarren zutabe-ko zenbakia, berriz, aurrekoa baino txikiagoa da. Trukatze-propietatea ere adierazten dute. Horrek beste batuketa batzuk ebazteko estrategia berriak pentsarazten dizkie. Esaterako:

$$\begin{aligned} 1+9 &= 10 \\ 2+8 &= 10 \\ 3+7 &= 10 \\ 4+6 &= 10 \\ 5+5 &= 10 \\ 6+4 &= 10 \\ 7+3 &= 10 \\ 8+2 &= 10 \\ 9+1 &= 10 \end{aligned}$$

$$5 + 6 = 11$$

$$5 + (5+1) = 10 + 1 = 11$$

$$\begin{aligned} 10 + 90 &= 100 \\ 20 + 80 &= 100 \\ 30 + 70 &= 100 \\ 40 + 60 &= 100 \\ 50 + 50 &= 100 \\ 60 + 40 &= 100 \\ 70 + 30 &= 100 \\ 80 + 20 &= 100 \\ 90 + 10 &= 100 \end{aligned}$$



Zazpigarren urratsean, **buruz ikasi** beharko dute 10eko taula. Oinarrizko prozesuak buruz jakiteak exekuzio-prozesuak murrizten laguntzen digu, eta, horrela, buruko kalkulua azkar-tzen eta errazten da.

Etxeko lanak ipini nizkien, jakina! Baina ume guztiek ulertuta zeukaten ordura arte landutako guztia. Euren erronka buruz ikastea izan zen, formula bat balitz bezala arin esan arte. Auto-lehiaketa bat balitz bezala. Gurasoeekin konpartitzeko eta umeen aurrean aztertzeko, hainbat grabaketa egin nituen. 10eko taularekin bezala, beste zenbakiekin ere egin daiteke.

Ariketa horiek guztiak egin ondoren, **“deskonposaketarako makina”** eraiki genuen. Zaila da zenbakiak euskaraz irakastea. Alde batetik, Bilbo inguruan, gaztelania da askoren ama-hizkuntza, eta diglosia nabarmen horrek transferentziak eragiten dizkigu. Eta, bestetik, zenbaki sistema hogeitarra erabiltzen dugu euskaraz. Nire eskarmentua oso positiboa izan da, eta zailtasun horiei ere aurre egin diet. Deskonposaketarako eta konposaketarako makinaren laguntzarekin, zenbakiaren esanahia ulertu dute umeek, eta errazago ikasi dituzte, gaztelaniaren interferentziak saihesten lagunduta.

Zotzekin zenbakiak sortu ahala, ikasi egiten ditugu zenbakiaren ize-nak; hots, “bat, bi hiru, lau, bost (...), hamar, hamar-bat, hamar-bi, hamar-hiru,...bi-hamar (hoge), hoge-bat, hoge-bi (...) hoge-hamar, hoge-hamar-bat, hoge-hamar-bi (...), bi-hoge (berroge) (...), hiru-hoge (...), hiru-hoge-hamar (...), lau-hoge (...), lau-hoge-hamar” (...). Horrela, *kantitate* kontzeptua ulertzen eta barneratzen doaz. Aurrerago, zenbaki bakoitzari izen berezi bat dagokiola azalduko diegu, hizkuntza guztiz arbitrarioa denez. Esaterako, “hamar-bat”, “hamaika”; bi- hamar bi aldiz hamar dela esango diegu, “hoge”, alegia; bi aldiz hoge dela “berroge”, eta abar. Zotzak ikusi eta ukitu egiten dituztenez, biziki barneratzen dute zenbakiaren kontzeptua eta edukiera. Deskonposaketarako eta konposaketarako makinan zotzak elkartzeko dira, eta zenbakiak sortzen ditugu, hainbat eratarata. Horixe da oinarria, zenbakiaren

esanahia barneratzeaz gain, hainbat modutara deskonposatzen eta konposatzen ikasten dutelako. Lehen aipatu dudanez, gaztelaniaren eraginez egin ohi diren akatsak murriztu egiten dira; adibidez, 43 zenbakia ikusi bezain pronto, “laurogeita hiru” esan beharrean (4 delako hasieran dagoen zenbakia), *bi aldiz hoge* gehi hiru dela jakingo dute, eta *berrogeita hiru* esango dute, nahiko erraz.

Material horrez gain, beste hainbat erabili genituen. Adibidez, kontaketa diskretua egiteko, puxtarriak, zentimok edo kromoak kontaktatzen genituen. Zenbaketa jarraituak lantzeko, berriz, Cuisineaire zotzak, billeteak edo euroak erabiltzen genituen. Beren esperientzietatik, bizipenetatik zenbat eta gertuago ibili, orduan eta errazagoa izango da ustezko diskalkuluarazoa murriztea. Youtuben, hainbat bideoetan, adibide ugari ikus daitezke. Espero dut baliagarria izatea.

- <https://youtu.be/Ynye28f7VPE> (kenketa pentsatzen)
- <https://www.youtube.com/watch?v=sBCNCGwVq0k> (batuketak pentsatzen)
- [https://www.youtube.com/watch?v=tvuXQ\\_f1Aj4](https://www.youtube.com/watch?v=tvuXQ_f1Aj4) (kenketa eskaileraren estrategia)
- <https://www.youtube.com/watch?v=iCN73aJA3z0> (deskonposaketarako makinaren tutoriala)

Behin, guraso batek kontatu zidan, kontu batzuk egiten zebilela, 7 urteko semearekin, harrিতa geratu zela buruz eta ozen batuketak aitak baino azkarrago egiten zituela ikustean. Izan ere, neuri ere gertatu zait halakorik gelan bertan. Ume batzuek oso arin ikasten dute, eta motibatuta daude, metodologia honek bakoitzaren ikasteko erritmoa errespetatzen duenez.

Amaitzeko, esan behar dut OAOA (Otros Algoritmos para las Operaciones Aritméticas) mugimenduari esker, ikasten ari naizela (Tenerifeko La Laguna ikastetxeko Antonio Martín irakasleari eta beste irakasle askori esker). Kanarietan, Newton izeneko proiektu bat sortu dute problemak lantzeko, eta proiektu horri begiratu bat ematera gonbidatzen zaituztet. Garrantzitsua da problemak ebazteko prozesua, baina emaitza bera ere bai.

“Algoritmo tradizionalak ontzat hartzen ditugu, guk menderatzen ditugulako; ez dute pentsamendua garatzen, ordea. Umeei zenbakiaren esanahian eta logikan oinarrituta dauden eragiketak irakatsi behar dizkiegu, batez ere, kontuan izanda ikasle gehienak aspertu egiten direla”

“Edozein eragiketa egin baino lehen, hobe da beti zenbakiak zer izan daitezkeen irudikatzea, jakitea zer egoeratan erabili ditzakezun, emaitzaren zenbatespena egitea alde aurretik, eta, azkenik kalkulagailuaz baieztatzea”

# EKARPENAK 3

JOLASA GIZARTE-ERALDAKETARAKO

## Zer-nolako erabilera du jolasak gizarte eraldatzeko?

InteRedek, 1992az geroztik, bidegabekeriak egun eragiten duen errealitate sozioekonomikoa eraldatzen dihardu, bai eta pobrezia, berdintasun ezaren eta bazterketaren aurka borrokan ere, gizarte-hezkuntzako prozesuen bidez eta giza eskubideetan eta generoan oinarritutako ikuspegi bat hartuta.

**H**ori horrela izanik, bai jolas kooperatiboa eta bai ludopedagogia ikuspegi batetik lantzen ditugu, sortu berri dugun lan kolektibo batetik: **zaintzen pedagogiaren bidez eta eraikitze ekarpenen bidez**. Zaintzen pedagogiaren bidez, nagusi den garapen-eredua zalantzan jarriko duen hezkidetzaren eredu bat eraiki nahi dugu, genero-berdintasunari lehentasuna emango dion eredu bat, guztiz bestelakoa.



Ruben Gallego

InteRed  
erakundeko  
boluntarioa

Curriculum-edukiak, metodologia eta irakaskuntza- eta ikaskuntza-prozesuak berregituratzea ekarriko duen hezkuntza-proposamen baten aldeko apustua egiten dugu, zaintza oinarritutako printzipio bihurtzeko. Eskolatu-inguruko beste eragile batzuek ikaskuntza-prozesu horietan parte hartzea ere ekarriko du horrek, hala nola komunitateak. Elkarrizketarako eta elkarren arteko trukerako espazioak ireki behar dira, hezitzaileek beren jardunbideak eta egiteko moduak berrazter ditzaten noizbehinka, dagozkien testuinguruetara eta ikasleek beharretara egokitzeko etengabe.

Zaintzen pedagogia lantzearekin batera, InteRedek Jolas eta Ekin proiektua ere garatzen du Euskal Herriko hamar ikastetxetan, Serso San Viator eta Gizakien Lurra erakundeekin batera, gizarte eraldatzeko prozesu horiek bideratzen laguntzeko.

Hemen jaso duguna *Etenaldia* liburuko atal baten laburpena da.

### Jolasa eta haren garrantzia

Zaila da jolasa hitzaren edo jolasteko ekintzaren definizio bakarra ematea, baina gure bizitzako lehen hilabete edo egunetatik hasten gara jolasten. Jolasak berezko gaitasuna du helduak eta haiek barnean daramaten haurra harremanetan jartzeko. Zentzu horretan, oso garrantzitsua da ohartzea jolasa adierazteko modu bat dela, eta, haren bitartez, pertsona bakoitzaren





pentsaera eta sentitzeko modua islatzen direla; hau da, pertsona izatearen adierazpena da.

Terry Orlick-ek dioenez, “jolastea bitarteko ezin hobea da gizarte-ikaskuntza positiborako; izan ere, naturala, aktiboa eta oso motibatzailea da (...). Jolasek etengabe inplikatzeko dituzte pertsonak ekintza-, erreakzio-, sentsazio- eta esperimentazio-prozesuetan”.

Jolasa adierazteko eta garapenerako modu bat dela ulertzeko eta ikusteko ildo horri jarraituz eta bizimodua zer gizarte-inguruetan garatzen den kontuan hartuta, honako hauxe dio Maite Garaigordobilek: “Jolasak oso eginkizun garrantzitsua du gizakien nortasunaren eraketan. Jolasa funtsezko behar bat da; giza garapenerako ezinbestekoa, esango nuke. Gorputzaren eta zentzumenen garapena sustatzen du, bai eta haurren pentsatzeko gaitasuna eta sormena ere. Komunikatzeko, sozializatzeko eta garapen moralerako tresna ahaltsua da, bai eta emozioak adierazteko eta kontrolatzeko tresna bat ere, oreka psikikoa eta osasun mentala sustatzen dituen”.

Pascal Derú are urrunago doa, eta, bere esperientzian oinarrituta, jolasak gizarte-ingurune horren eraldaketan daukan indarra azaltzen digu, jolasa honela deskribatuz: “Bizitzan aurrera egiteko urrats txikiak. Jolastea bizitzan zerbaiten alde egitea da, globali-

zazio-ideia bati aurka egitea. Jolastea denbora lapurtzen digun gizarteari aurre egitea da, denbora berreskuratzea. Jolas kooperatiboetan aritzen garenean, harremanak berreskuratzen ditugu. Jolas kooperatiboetan, beste pertsonen indarrak aukera bat dira niretzat. Jada ez dago mehatxurik. Orduan azal gaitezke garen bezala”.

### **Jolas kooperatiboak: eraldaketaren eragile**

Jolas ezagunenak gure gizarte-egitu-

raren isla zehatzak dira. Horregatik, hezitzaile garen aldetik, proposatuko dugun jolasak ez badu errealitatearen irakurketa kritikoa egiten, gizartean nagusi diren balio-eskala, adierazteko moduak eta harremanak egiteko moduak erakutsiko ditu jolasak. Zentzu horretan, antzekotasun hauek aurkituko ditugu gure gizartedynamikak arautzen dituen sistema kapitalista, lehiakor eta heteropatriarkalaren eta egitura lehiakorreko jolasen artean:

SISTEMA KAPITALISTA	JOLAS LEHIAKORRAK
Kapitala da muina, ez pertsonak.	Irabaztea da xedea, ez pertsonak.
Gizartea mailakatuta dago.	Garaileak eta garaituak daude: 1.a, 2.a, 3.a eta abar.
Harreman bertikalak - botere hierarkikoa.	Irabazlea besteen gainetik dago (podiuma).
Pertsona batzuek gizarte-bazterketa jasaten dute.	Pertsona batzuk kanporatu egiten dira.
Arauk eta legeak zurrinak dira, eta ezarrita daude. Arauk sortzeko eta aldatzeko aukera gutxi.	Arauk eginak eta emanda daude. Elkarrizketarako eta adostasunerako aukera gutxi.
Emitza eta haren kuantifikazioa dira gauzarik garrantzitsuena.	Irabaztea edo galtzea eta ahalik eta alderdik handiena ateratzea da gauzarik garrantzitsuena.
Kapital handiena dutenek izango dute baliabideak eta ongizatea eskuratzeko eta kontrolatzeko aukera gehien.	Jolasean aintzat hartutako abilezia garatuena daukanak izango du irabazteko aukera gehien.
Presaren eta hazkuntza mugagabearen kultura.	Lehena izatea eta ahalik eta alderdik handiena ateratzea da balio duena.

## EKARPENAK 3: JOLASA GIZARTE-ERALDAKETARAKO

“Jolas kooperatiboa eta ludopedagogia eraldaketarako tresna bihurtzen dituen gakoetako bat metodologia bera da, esperimentazioan oinarritutako metodologia. Ikuspegi sozioafektibotik egiten da lan, afektuen eta bizipenen alderdia sustatuz; hala, aukera ematen zaio pertsonari bere osotasunean —buruarekin, gorputzarekin eta emozioekin— hezkuntza-prozesuan parte hartzeko”

Haurrak egitura lehiakorrek jolasetan aritzen dira, eta, hala, etorkizunean, helduak direnean, baliagarriak izango zaizkien balioak ikasiko dituzte, trebetasunak barneratuko dituzte, eta jarrerak garatuko. Era berean, helduok gizartean garatuko ditugun balioak, trebetasunak eta jarrerak indartzen ditugu.

Gizarte-balioen sistema hegemonikoaren eta balio horiek pertsonengan gauzatzearen artean sortutako gurgil zoroa hausteko, eraldatu egin behar da haurrek ikaskuntzan garatzen duten errealitatea. Jakina da haurrek jolasa erabiltzen dutela errealitatea berenganatzeko, eta haien garpenerako funtsezko tresna dela. Hala,

bakea, zaintza, inklusioa, sormena eta harreman horizontalak sustatzen dituzten balioak jolasean berezkoak izatea lortzen badugu, gizartean nagusi den balio-eskalaren bestelakoa den ingurune batean egingo dute haurrek ikasketa-prozesua; hortxe hasiko da etorkizunean izango diren helduen eta garatuko dituzten gizarte-dinamiken eraldaketa-prozesua.

Esku-hartze horretan, jolas kooperatiboek berebiziko garrantzia dute guretzat. Ideia hori argitzeko, neurri handi batean gure gizartearen balioak errepikatzen dituzten jolas konpetitiboak eta gizarte-eraldaketarako bitartekotzat ulertzen ditugun jolas kooperatiboak alderatuko ditugu:

JOLAS LEHIAKORRAK	JOLAS KOOPERATIBOAK
Irabaztea da xedea, ez pertsonak.	Xedea pertsona guztiakin irabaztea da.
Garaileak eta garaituak daude. Irabazlea besteen gainetik dago (podiuma).	Denek irabazten edo galtzen dute, eta aldi berean.
Pertsona batzuk kanporatu egiten dira.	Ez da inor kanporatzen, inklusioa.
Arauk eginda eta emanda daude. Elkarrizketarako eta topaketarako aukera gutxi.	Arauk malguak dira, aldatu eta adostu egin daitezke; horrek topaketarako bidea ematen du.
Garrantzitsua da irabaztea edo galtzea, eta zenbateko aldearekin. Azken uneak du garrantzia.	Jolasean bizitako prozesua ere garrantzitsua da, ez bakarrik jolasaren amaiera.
Indargune handienak dituzten pertsonak izango dute jolastan ari diren jolasean irabazteko aukera gehien.	Pertsonak taldearen esku uzten dituzte beren aukera eta indarguneak, proposatutako erronka gainditzeko.
Lehena izatea da gauzarik garrantzitsuena.	Pertsona guztiak batera iristen dira jolasaren amaierara.



# 0-3 adin tarteko haurrekin aritzeko, bi urteko formazioa

Plaza batzuk geratzen dira



Izena emateko: [www.hikhasi.eus](http://www.hikhasi.eus)

## Jolas kooperatiboak eta eraldaketa soziala

Garapenerako gobernu kanpoko erakunde bat garen aldetik, gure helmuga eraldaketa soziala da, bizitzaren iraunkortasuna eta zaintzak erdian jarriko dituen garapen-eredua lortzeko eraldaketa; Amaia Pérez Orozcok (ekonomista eta feminista) dioenez, “bizitza erdian jartzea, bizitza mespretxatzen duen sistema bat iraultzeko”.

Prozesu hori gerta dadin, ezinbestekoa da geure burua zaintzea, eta taldea osatzen duten pertsonen gu zaintzen uztea. Jolasaren bitartez taldea osatzen dugun pertsonengan arreta jartzeak eragindako plazera eta ongizatea bizitzea lagungarria izan daiteke, gure bizitzan eta gizarte-garapenean ere zaintzek zer-nolako eginkizun nagusia betetzen duten ikusarazteko eta horiek balioesteko.

Enrique Pérez Oliverasek (gorputz hezkuntzako irakasle uruguaiarra) proposatzen du jolasa esperimentatzeko erabiltzea, eta errealitatea eraldatzeko aukerari behatzea: “Lankidetzak arazoak eta gatazkak konpontzen lagundu dezake; jolasak kontuan hartzen baditu elkartasuna eta lankidetzak, gutako bakoitzak zer-nolako ahalmena duen proba dezakegu, bizi dugun errealitateak jarritako arazoei konponbide sortzaileak emateko taldean. Hortaz, jolasetan lankidetzaz hitz egiteak beste aldaketa-prozesu batzuen protagonista ere izan gaitezkeela esan nahi du”.

Pascal Derúk ere jolas kooperatiboak eraldaketa sozialarekin lotzen ditu, honako hau esaten duenean: “Nire lanbidean zenbat eta aurrerago egin, gero eta gehiago ohartzen naiz jolastea gure denbora lapurtzen digun gizarte-eredu bati aurre egiteko modu bat dela, jolasean gure denbora taldearen esku uzten baitugu. Jolastea ez da telebista ikustea; gauza on bat elkarrekin bizitzea da. Dena berehala eskatzen duen gizarte-ereduari aurre egitea da jolastea, modak eta kontsumoak gonbidatutako gizarte-ereduari aurre egitea. Jolastea globalizazioari aurre egitea da, tokian tokiko irudimen-jolasak proposatuz, mundu guztiak gustu berak ez dituela adieraziz eta bestelako jolasetan ondo pasatuz. Jolastea indarraren legeak arautzen duen gizarteari aurre egitea da; batez ere, jolas kooperatiboak proposatzen ditugunean, txi-

kitxoenei beren lekua aitortzen dieten jolasetan, pertsonen hauskortasunetik abiatuta zerbait eraikitzen dugunean. Gure erresistentzia-proiektua edozein dela ere, gauzarik garrantzitsuenak ez dira erabili ditugun jolasak, gauzarik garrantzitsuena borondate ona da: nola hartu zaitudan jolasean, nola ematen dizudan hazteko aukera jolas eginez”.

Jolas kooperatiboa eta ludopedagogia eraldaketarako tresna bihurtzen dituen gakoetako bat metodologia bera da, esperimentazioan oinarritutako metodologia. Ikuspegi sozioafektibotik egiten da lan, afektuen eta bizipenen alderdia sustatuz; hala, aukera ematen zaio pertsonari bere osotasunean –burua-rekin, gorputzarekin eta emozioekin– hezkuntza-prozesuan parte hartzeko. Hiru une ditu ikaskuntza-prozesuak:

- Sentitzea, nor bere larruazalean nabaritzea.
- Pentsatzea edo hausnartzea, jolasean sentitutakoari eta bizitakoari buruz. Taldean adieraztea eta elkarrekin banatzea. Ikaskuntzak ondorioztatzea. Jolasean bizitako gatazka txikien eta emozioen egunerokotasuna baliatzea, gure egunerokoarekin eta munduarekin lotzeko.
- Ekitea, taldean eta, hedaduraz, gizartean bizikidetzak demokratikoa lortzeko. Ahalduntzea, banakako eta taldeko aldaketaren eragile gisa.

Hortaz, ikuspegi sozioafektiboari esker, balioak, jarrerak eta edukiak ikasteaz gain, esperimentazioaren ondorioz ere ikasiko dugu, eta hortik abiatuta eraikiko ditugu ezagutzak taldean.

Hala, herri-hezkuntzaren filosofiarekin bat egiten du; izan ere, ezagutza pertsonengandik dator, garen horretatik, gure praktika eta testuingurutik, eta ezinbestean islatzen da jolasean eta taldeko dinamikan parte hartzeko dugun moduan. Hezkuntza-prozesua irakaskuntza- eta ikaskuntza-prozesu den aldetik ulertzen da, partaideen arteko jakintza, elkarriketa gisa; horrenbestez, herritar kritikoak, tokiko eta munduko errealitatearen protagonista izango diren herritarrak, sortzeko prozesu bihurtuko da.

Halaber, Paco Cascónek hiru etapa horietan oinarritutako metodo bat aipatzen du: “Lan egiteko modu

horizontal, parte-hartzaile eta ludikoan sinesten dugu, edukiak esperientzia eta errealitate bat oinarri hartuta proposatzen dituen, eta denok geure azalean senti dezakeguna, esperientzia pertsonala eta hurbilekoa balitz bezala; hortik abiatuta, sakondu eta aztertu egingo dugu”.

Hortaz, jolas kooperatiboen eta ludopedagogiaren bitartez, harremanak lehiakortasunetik kanpo egiteko eta ekiteko beste logika batzuk proba ditzakegu. Jolas kooperatiboetan, lehiak lekua uzten dio lankidetzari, eta, horri esker, pertsona guztiek lekua dute taldean; hala, autoestimua indartzen da, eta desberdintasunak onartzen dira. Hortaz, esperientzia atseginei inklusioa, bizikidetzak, indarkeriarik eza, besteekiko errespetua, lankidetzak eta boterearen erabilera eraikitzaile eta kolektiboa gehitzen badizkiegu, ohitura horiek sendotuko ditugu gure eguneroko bizitzan, eta bake-kulturan, bizikidetzan eta giza eskubideetan oinarritutako gizartea eraikitzen lagunduko dugu.

Aurretik ezarritako edukiak kontuan izanik, ondoriozta dezakegu gizarte libre bat eraiki dezakegula, umeen askatasunean eta jolas librea barneratzen diren ikaskuntzak aintzat hartzen ditugunean. Jolas kooperatiboak sendagai dira gure gizarte gaixoarentzat, batez ere umeen garapenean eta helduen emozioen kudeaketaren arloan. Aspalditik, jakin badakigu izaki bizidun bat beti bere osotasunean haziko dela, testuinguru egokian murgiltzen bada. Gure gizartearen eta hezkuntza-sistemen premiazko erronka testuinguru hori seguru eta konfiantzazko habitat bilakatzea da, hor sortzen diren harremanak eta zaintzaile, hezitzaile, bidelagun, irakasle, begirale edo dena delako figura profesionalarekin sortuko den atxikimendua zainduz eta bermatuz. Ezinbestekoa da hezkuntzak eskatzen duen espazio-erlaldaketa horri gizarte bezala dauzkagun baliabide askotarikoak eskaintzea, batez ere arlo ekonomikoan eta pedagogikoan.

Badira gure gizartean eraiki nahi den hezkuntza-sistemaren inguruko zalantzak. Une egokia da berriz ere jolas-teak dakartzan esperientziekin bustitzeko, sentitzeko eta, azken finean, gure bizitza berreskuratzeko. Hori izango litzateke gizarte-erlaldaketarik sakonena.

# GALDEIDAZU

## NOLA ERAGITEN DU EGUNGO MODA-EREDUAK GAZTEENGAN?

**G**aur egungo moda gure gizartearen egitura sozialaren zein ekonomikoaren isla da, eta esan daiteke gizartean nagusitzen den moda-ereduak zapaldu egiten gaituela. Gure gizartean gertatzen diren zapalkuntzak eta botere-harremanak erreproduzitu egiten dira, batik bat emakumeonganako indarkeria eta zapalkuntza. Egun dugu moda-eredua, beraz, sistema heteropatriarkal-kapitalistak bizirauteko ezinbestekoa duen tresna da, harekin betikotzen baititu sexu-, genero- eta sexualitate-rolak.

### Lan-esplotazioa

Industria feminizatua dugu moda-industria, eta ez da kasualitatea. Irabazi gehien ematen dituen industrietako bat izan arren, langileei gutxien ordaintzen dien industria da, eta esparru horretako langileak dira baldintza txarrenetan lan egiten dutenak; kontuan izan behar da, gainera, langileen % 80 emakumeak direla. Joskintza, historikoki, emakumeok esparru pribatuan egin dugu lana izan da, etxeok lanekin eta zaintza-lanekin batera. Gaur egun, gutxietsitako lanbidea da, eta, hori ulertzeko, beraz, kontuan izan behar da historikoki emakumeokin erlazionatu izan dela. Europar kontsumitzen ditugun jantzien % 70 Asian, Afrika iparraldean eta Europa ekialdean ekoizten dira. Jantzi horiek leku horietako emakumeek egiten dituzte, esklabotza-egoeran, batik bat neska gazteek eta umeek. Deslokaliza-



### MADDALEN ADURIZ

### Moda eta berdintasun hezitzailea



zioaren atzean eskulan merkea ezkutatzeaz gain, modako lobbyek lan-eskubiderik ez duten edota eskubide lausoak dituzten langileen herrialde-tara jotzen dute. Horren adibide dugu Rana Plaza (Bangladesh) eraikina erortzean hil ziren 1.137 langileen kasu larria, 2013ko apirilaren 24an gertatua; moda-saltoki ezagunentzat aritzen ziren josten eraikin horretan. Hori gutxi balitz bezala, gertakari horren harira egin diren mobilizazioak isilarazi egin dituzte, eta zapaldu egin ditu horrelakoak Bangladesheko estatuak; horrek agerian utzi du leku horietako gobernuak moda-multinazionalen esku daudela.

### Gorputzaren aniztasuna

Jantziak ekoizten dituzten herrialdeetako emakumeak esklabo gisa etengabe lanean ari diren bitartean, herrialde kontsumitzaileetako emakumeok haiek sortzen dituzten arropak erosten ari gara, eta, beraz, emakumeon aurkako indarkeria kontsumitzen dugu etengabe.

Herrialde horietako emakumeak zapaltzeaz gain, gorputzen esklabotzaren aroa bizi dugu hemen. Publizitate sexistaren bitartez, behin eta berriro gorputzen dugu emakumeon aurkako indarkeria sinbolikoa. Emakumeok argalak, gazteak, lirainak, ilerik gabeak, zelulitis gabeak, zimurrik gabeak... izan behar dugula adierazten digute, gizonentzako objektu desiragarriak, finean. Gaur egun gure gorputzekin dugu harreman gatazka-

tsura garamatza horrek, gure indarrak gure gorputza aldatzera bideratzera, dieta amaigabeak eginez, gimnasia joanez, kosmetiko garestiak erabiliz, ebakuntzak eginez... Muturreko kasuetan, gaixotzera ere iristen gara. Horren erakusgarri da anorexiarekin, bulimiarekin eta elikadura-arazoekin lotutako kasuak kopuruak horren modu larrian igo izana. Saltokietako jantzien neurriak ez dira marketineko neurriak besterik, etxez etxe aldatzen direnak; patroigintza industrialean, altuera jakin bati zabalera eta proportzio jakin batzuk dagozkio. Hala ere, ez da erraza zabalera, proportzio eta altuera horiekin bat egitea, kasu gehienetan jantziak ez baitira egokitzen gure gorputzetara. Horrez gain, neurri industrial horietatik abiatuta, saltokiek nahi dituzten neurriak ahalbidetzen dituzte, gure barne-estimuekin jolastuz gehiago saltzeko. Neurriak handitzen dituzte, esaterako, gure neurriak txikiagoak direla sinestartzeko. Gure gorputzak neurri batekin edo beste batekin parekatzea, normalen edo handien kategorietan sartzea, ez da gorputzen aniztasuna ezkatatzeko trikimailua besterik, eta estereotipoen presioa eta gure gorputzekiko indarkeria zabaltzen ditu.

### Sormena

Sormenari dagokionez, joerak inposatu egiten dira. Modak dakartzan joera horien esklabo bihurtzen gara gehienok, horretarako arropa asko erosiz eta botaz, erosiz eta botaz, jantzi horiek beren bizi-zikloaren bukaerara heldu aurretik. Askotan, joera horietatik aldentzen saiatzen gara, baina beste joera batzuk sortzen ditugu, eta moda bihurtzen dugu dena. Modaren lobbyek gizartean dauden joera, talde eta mugimendu guztiak asimilatzen dituzte; hippyak, hipsterrak, punkyak, ekologistak, feministak... Horixe adierazten du, esate baterako, Inditex dendak lelo feministak dituzten kamisetez bete izanak. Baina ez dugu ahaztu behar horrek barnean biltzen duen kontraesana.

Pertsonok dugun komunikazio-tresna indartsuenetakoa da moda, huraxe baliatzen baitugu klase edo talde baten parte sentitzeko, edota besteengandik bereizteko ere. Gure jantzeko mo-

duarekin, gauza anitz komunikatzen ditugu, edo zenbait mezu helarazteko ere baliatzen dugu janzkera: zer alderdiri ematen diogun bozka, zer musika entzuten dugun, zer liburu irakurtzen ditugun, zein den gure bizi-filosofia, zer-nolako harremana dugun gure buruarekin, gorputzarekin... Horren ondorioz, oso zaila da gizarteak modaren bitartez ezartzen dizkigun mugak apurtzea. Izan ere, marra gorriak gailentzen baditugu, gizartean ezartzen zaigun kontrol sozialaren bitartez zigortuko gaituzte gure lanean, eskolan, familian, kuadrillan, taldean edo ezezagunen artean, begiradaren bidez, esaterako.

Emakumeon kasuan, zoriontasuna gure edertasunean, itxuran, apaintasunean... oinarritzen dute, gure balio garrantzitsuena eta bakarra horixe balitz bezala. Hori dela eta, emakumeok emakumeoi bideratutako produktuetan, *pink tax* deritzon prezio gehigarria ordaintzen dugu. Gure gorputzak maitatzen ikasi beharrean, gure gorputza aldatu eta modu jakin batean apaindu behar dugula sinestartzatzen digute gizon heterosexualen neurriak sortutako kanon estetikoek, gure hutsune emozionalak arroparen eta kosmetikaren kontsumoak aseko dituelakoan. Beti ongi orraztuta, margotuta, jantzita... egon behar dugu. Ez gehiegi, txolinak edo irrigarriak izan ez gaitezen. Baina ezta gutxi ere, narrasak, utziak izan ez gaitezen. Gure gorputza erakutsi behar dugu. Ez gehiegi, "putak" izan ez gaitezen, baina ezta gutxi ere, gajoak izan ez gaitezen... Bestalde, argi dago modaren kontsumoa erabat feminizaturatuta dagoela, bai eta harekin lotutako aisialdia nahiz sormen-lana ere. Ez da harriztekoa, beraz, modari lotutako aisialdiak gizartean duen balio gutxietsiak emakumeekin lotura zuzena izatea. Nabarmena da, balioen eskalan, maskulinoaren eta femeninoaren mailaketan, kontsumo nahiz aisialdi maskulinizatuak (teknologia, autoak, futbola...) kontsumo zein aisialdi feminizatuen gainetik daudela.

### Ingurumena

Moda-industria da kutsadura gehien sortzen duen sektoreetako bat. Lehengaien ekoizpen masiboak nahiz

Jantziak ekoizten dituzten herrialdeetako emakumeak esklabo gisa etengabe lanean ari diren bitartean, herrialde kontsumitzaileetako emakumeok etengabe haiek sortzen dituzten arropak erosten ari gara, eta, beraz, emakumeon aurkako indarkeria kontsumitzen dugu.

Herrialde horietako emakumeak zapaltzeaz gain, gorputzen esklabotzaren aroa bizi dugu hemen. Publizitate sexistaren bitartez, behin eta berriro gorputzen dugu emakumeon aurkako indarkeria sinbolikoa. Emakumeok argalak, gazteak, lirainak, ilerik gabeak, zelulitis gabeak, zimurrik gabeak... izan behar dugula adierazten digute, gizonentzako objektu desiragarriak, finean.

erabiltzen diren pestizidek izugarritzko ondorio kaltegarriak dituzte ekosistematan. Lehengaiak ehuntzeak eta haien tindatze kimikoen kalte handiak eragiten dituzte zeregin horietan lan egiten duten langileen zein ingurumenaren osasunean. Herrialde horietako erreak eta ibaiak kolore batekoak edo besteak izaten dira, industrietan lantzen dutenaren arabera. Oihalak moztzen eta josten aritzen diren langileek ere osasun-arazo larriak izaten dituzte, ehunen hauts kutsakorraren arnastearen ondorioz. Horrez gain, kutsadura handia eragiten du deslokazioak bultzatutako etengabeko garraioen joan-etorriak. Hori gutxi balez bezala, oihalek dituzten toxikoen ere osasun-arazoak sortzen dituzte arropa horiek janzten ditugunongan.

**Moda-industria da kutsadura gehien sortzen duen sektoreetako bat. Lehengaien ekoizpen masiboak nahiz erabiltzen diren pestizidek izugarritzko ondorio kaltegarriak dituzte ekosisteman.**

Kontsumo basatiak ahalbidetzen duen “erosi eta bota” ziklo ez-jasangarriak izugarritzko zaborra sortzen du. Gizartean kutsaduraren inguruan sortu den kezka aurrean, modako multinazionalak *green washing* deritzon marketingo estrategia baliatu dute, beren irudia “berdez” garbitzeko, bilduma ekologikoak ekoiztuz, arropa zaharrak birziklatzeko kanpainak bideratuz... Kontuan izan behar dugu, ordea, gaur egun jantziek konposizioaren aldetik duten nahasketa dela eta, ia ezinezkoa dela birziklatzea, horretarako jantziek zuntz mota bakarra izan behar baitute.

### **Aukerak:**

- **Kontsumo-kultura kontzientea**  
Moda-eredu nagusiaz gain, hasiak dira beren lekua egiten beste eredu batzuk ere, jasangarritasuna helburu duten diseinatzaile zein markak sortzen ari baitira. Horren adibide ditugu hemen sortu diren eta hemen ekoizten duten diseinatzaileak. Ezin ahantz dezakegu gaur egungo moda-sistema salatu eta beste balio batzuk bultzatzen dituzten mugimenduen eta eragileen lana ere. Hor ditugu, esate baterako, Setemek bideratzen duen “arropa garbia” kanpaina edota Fashion revolution mugimendua.

Ezinbestekoa dugu kontsumo-kultura kontzientea zabaltzea eta balio horietan hezteak. Jantzien atzean dagoen historia ikusten ikasi behar dugu, bai eta duten balioa ematen ere. Argi utzi behar dugu arropa merkeen prezioa ez dela erreala, prezio horien atzean

lan-indarraren zapalkuntza ezkututzen baita. Kontsumo basatia bultzatzen duten moda-lobbyei planto egin behar diegu, batetik, eta presio kolektiboa egin behar dugu, bestetik. Zer, nola eta zergatik erosten dugun aztertu behar dugu; etiketak irakurri behar ditugu, non josi diren, zer zuntzekin egin diren... jakiteko. Beharren eta desioen arteko hausnarketa egin behar dugu, eta jarrera kritikoa garatu behar dugu, gure autoestimuekin jolas egin ez dezaten eta gure hutsune emozionalak kontsumoaren bitartez asetzeko beharrik izan ez dezagun. Gorputzen aniztasuna ikusarazi behar dugu, eta gure gorputzak maitatzen eta horiekin gozaten ikasi. Joeren bitartez sistemak ezartzen dizkigun feminitate- eta maskulinitate-rolak zokoratzeko, gure sormen propioa garatzen hasi behar dugu. Gure aitona-amonen, gurasoen... jantziak berreskura ditzakegu, duten balio sentimentalari helduz eta, bide batez, geure eginez, gure gorputzetara moldatuz eta gure izaerarekin pertsonalizatuz. Arropa truka dezakegu gure lagunekin, edo truke-azoketan parte har dezakegu. Saltoki handietan kontsumitu beharrean, bigarren eskuko dendetan kontsumi dezakegu, eta, bide batez, jantziei beste bizitza bat eman diezaikegu horrela, berdina ala desberdina... Edo, beste balio batzuetan oinarrituta, sorkuntza-prozesua zein ekoizpena hemen gauzatzen duten diseinatzaileei eros diezaikegu.

- **Joskintza, jabeakuntza feministarako tresna**


Joskintza historikoki emakumeek esparru pribatuan egiten zuten lana izateaz gain, emakume askorentzat beste emakume batzuekin elkartzeko eta sozializatzeko esparru bakarra zen, saretzeko baliatzen zutena. Gure aurreko belaunaldietako emakumeen ezagutza berreskuratzeko eta horri duen balioa emateko aukera paregabea dugu, jabeakuntza feministarako oso tresna baliogarria baitugu joskintza. Josten ikasteak aukera ematen digu neurrien kontua zokoratzeko, joeren inposaketari zein estereotipoei uko egiteko nahiz moda-multinazionaltan ez kontsumitzeko. Gure gorputzak jantziatara egokitzen saiatu beharrean, gure gorputzera egoki-

tzen diren jantziak egin ahal izango ditugu, ikusezinak diren gorputzen aniztasuna ikusaraziz eta aldarrikatuz. Gure sormena, nahiak, ideiak, izaera... eraiki eta gorputzu ahal izango ditugu. Horrez gain, jantziak bota beharrean, konpondu, eraldatu zein pertsonalizatu ahal izango ditugu, bizitza berri bat emanez. Jantziak egiteak, konponetzeak, eraldatzeak nahiz pertsonalizatzeak dakarren sormen-prozesu osoa gure eskuekin egin ahal izateak jabeakuntza zein autonomia izugarria adierazten du, bai eta aisialdiak gozatzeko aukera ederra ere; eta modu kolektiboan bada, hobe.

- **Hezkidetzak**

Eskoletan, hezkuntza formalari erreparatzeaz gain, gero eta garrantzi handiagoa ematen ari gara hezkidetzari. Gazteak bere banakotasun nahiz berezitasunaren arabera hezi nahi baditugu eta ez irizpide sexisten arabera, ezinbestekoa dugu, beste arloak lantzen ditugun moduan, modaren eragina ere lantzea. Modak sexu-genero-sexualitate sistema hierarkikoaren eraikuntzan duen eragina aztertu behar dugu, baita sor dezakeen indarkeria sinbolikoa ere. Testuinguru heteronormatibo eta patriarkal honetan gazteek identitatearen auto-eraketa dinamika malgu eta moldagarri bat garatzeko aukera eta askatasuna izan dezaten baliabide praktikoak eskaintzea behar beharrezkoa dugu. Moda-ereduak bultzatzen duen estereotipo hertsia nahiz dikotomikoaren aurrean, estereotipo horiek apurtzeko transformazio dinamikak martxan jar ditzakegu, emakume eta gizonei ezartzen zaizkigun rol zein jarrerak trukatzeko eta zalantzan jarriz, adibidez. Kontsumo eredu basatiaren aurrean bestelako kontsumo ereduak ezagutarazi eta praktikan jar ditzazkegu. Gure gorputzak diren moduan onartu eta maitatzeko lanek ezberdinak martxan jar ditzazkegu, edertasunaren inguruko eztabaida sustatuz, gorputzen aniztasuna ikusaraziz, autoestimua lantzeko ariketak eginez... Eta, nola ez, genero estereotipoetatik kanpo, norberak bere identitate propioa sortzeko aukera izan dezan joskintza lantzea aukera oso egokia izan liteke.

# ARGITALPENAK



**ELMER ETA OSTADARRA**  
David McKee

## EREIN

Elmer elefante koloretsu eta arrakatsatuaren istorio berri bat kontatzen du liburu honek. Oraingo honetan Elmer triste jarri da ostadarrak koloreak galdu dituela ikusi duenean. Beti bezala, bera prest dago laguntzeko, baina zer gertatuko da berarekin, ostadarrari ematen badizkio bere koloreak? Eskuzabalta-sunari buruzko ipuina da.



**EUSKAÑOLA: TARTEKO HIZKUNTZA**  
Pello Etxaniz

## INDEPENDENTEA

Haurrek, gazteek, euskara ikasle helduek ere bai, hizkuntza jabetzeko prozesua nola egiten duten aztertzen da liburu honetan. Zergatik eta nola gertatzen den euskañola. Eta prozesu hori nola hobetu proposatzen da. Liburuaren hartzaileak irakasleak dira. 5 eurotan dago salgai Amazon-en paperean inprimaturik eta euro lean ebook formatuan.



**ERNE ETA BARE, IGELAREN PARE**  
Eline Snel

## KAIROS

Liburu honetan haurren meditazioa lantzeko zenbait istorio ageri dira, bai eta ariketa simple eta labur batzuk ere, haurrek egunero egin ditzaketenak. Liburua 5 urtetik 12 urtera arteko haurrentzat eta haien inguruko helduentzat da, ariketak elkarrekin egin ditzaten. Baretzen, erlaxatzen eta kontzentratzen laguntzen duen liburua da.



**ARKITEKTURA BATXILERGOAN**  
Ahinitze Errasti eta Alex Gonzalez

## ARIZMENDI IKASTOLA

Konfiantzaren pedagogiak Batxilergoako arkitektura-jauzia eman du. 2016-17 ikasturtean zehar Batxilergoko ikasleekin eta lankideekin abiatutako prozesuaren eta LKS eta EREDU kooperatibekin lankidetzan burututako jardunaren emaitza biltzen du liburuak. Espazioak eta altzariak propio diseinatu dira gazteek indibidualki, talde txikitik nahiz handitan lan egin dezaten.



**GAXUXAREN KLARION MAGIKOA**  
Alvaro eta Oihane Beñaran

## HIK HASI

Haurren beldurrei buruzko ipuin bat da. Bizitzako etapa batean (2-6 urte) agertzen diren beldurrei aurre egiten laguntzeko sortutako kontakizun bat. Horretarako, gure gizartean eraikitako zenbait pertsonaia beldurgarriekin —munstroa, otsoa, sorgina...—, Gaxuxak (hau da, haur guztiek) bere klarion magikoa erabiliko du, beldurrak giltzapean sartzeko.



**HARRI BERDEA**  
Julio Santos / Patricia Perez

## XARPA BOOKS

Txano eta Oscar anaia bikiak dira. Ustekabeko galanta hartuko dute uda hasierako txango batean: suzko bola erraldoi batek zeharkatuko du zerua, eta basora eroriko da. Bi aldiz pentsatu gabe, meteoritoaren bila abiatuko dira Txano eta Oscar, eta baita aurkitu ere! Harri berde bitxi bat da, eta haren distirak sekretu bat gordeko du. Hor hasiko dira anaien abenturak.

# PROPOSAMENA

---

## Barretartia Umore Zerbitzuak

### Umorea bizitzan aurrera egiteko tresna izan daitekeelako

Umorea landu eta sustatzeko ikastaroak, hitzaldiak, aholkuak, ikuskizunak, artikulak eta abar eskaintzeko xedez, Barretartia Umore Zerbitzuak sortu du Idoia Torregarai kazetari eta umoregileak. Besteak beste, umorea bere egunerokotasunean txertatu nahi duten irakasleentzat formazio-saioak ematen ditu, baita umorezko ikuskizunak eskaini ere irakasleentzat, bereziki, Bigarren Hezkuntzakoentzat.



Umore sorkuntzari ez ezik, umoreari buruzko jakin-garri, aholku eta abantailei tokia egitea helburu hartuta, Barretartia Umore Zerbitzuak sortu du Idoia Torregarai. Kazetaria da ikasketaz, eta umorezalea bihotzez. 2012. urtean Barretartia bloga ireki zuen, umorea euskaraz egin eta umoreari buruz aritzeko. Azken urteetan umorearen inguruko ikastaroak

eskaintzen ari da, umorezko kolaborazioak egiten hainbat mediotan eta baita bakarrizketa saioak erakusten ere. Hori guztia batu eta umoreari lotutako proiektu integrala osatu du orain: Barretartia Umore Zerbitzuak ([www.barretartia.eus](http://www.barretartia.eus)).

Umorea bizitzeko era bat da Torregararentzat, eta era berean, giza gaitasun bat ere bada, alegia, edonork landu dezakeen zerbait: “Batzuek,

izatez, erraztasun handiagoa daukate umorerako beste batzuek baino, bizitzako beste hainbat arlotan gertatzen den bezala. Baina estrategia bezala erabiltzeko lehen baldintza, erabili nahi izatea da. Behin borondate hori barneratuta, praktika kontua da hortik aurrerakoa”.

Aspalditik zuen umorearekin loturiko zerbait egiteko gogoia; barren barrenean sentitzen zuen zerbait zen.




Eta hala sortu zuen orain dela sei urte Barretartia bloga. Umorea euskaraz egiteko leku bat eraiki nahi izan zuen, baita umoreari buruz hausnartzeko espazio bat eskaini ere. 300 post baino gehiago idatzi ditu urteotan, mota guztietakoak: medioetarako idatzitako kolaborazioetako gidoiak, aholkuak, beste pertsonen kolaborazioak, artikulak...

Torregarai gero eta kontzienteago da umoreak pertsonen egunerokoa duen garrantziaz eta horretan sakontzen jarraitu nahi izan du: “Azken urteetan umoreari buruz asko ikasten ari naitzela sentitzen dut eta eskaintza polita egin dezakedala. Horregatik erabaki dut teoria eta praktika uztartuz, eskaintza integral bat egitea Barretartia Umore Zerbitzuak-en bitartez”. Blogean edukiak sortzen jarraituko du, baina horrez gain, umoreari buruzko jakingarri nahiz aholkuei ere toki zabalagoa egingo die. Horretarako hainbat ikastaro sortu ditu: umorea hezkuntzan, umorea eta sormena, umorea eta generoa, umorea egunerokotasunean, barreterapia... Bestetik, umoreari buruzko hizaldiak ere eskaintzen ditu, eta baita banakako eta binakako bakarrizketak ere.

Edonorentzat irekita dago Barretartia Umore Zerbitzuak. Hezkuntza

arloari dagokionez, umorea euren egunerokotasunean txertatu nahi duten irakasleentzat formazio-saioak ematen ditu, eta baita umorezko ikuskizunak eskaini ere ikasleentzat, bereziki Bigarren Hezkuntzatik aurrerakoentzat. Izan ere, Torregarai argi du umorea onuragarria dela adin guztietarako eta zeregin orotarako: “Fisikoki barre egiteak bihotza indartzen du, azala gaztetzen du, arteria-presioa jaisten du, sistema immunologikoa gogortzen du, digestioa hobetzen du, arnasa errazten du eta abar. Horretaz gain, umorearen ‘txipa’ piztuta edukitzeak konfiantza eta animoa igotzen ditu, talde kohesioa eta harremanak errazten ditu, tentsioak askatzen ditu, motibazioa areagotu eta ahalduntzen ere laguntzen du”. Era berean, ordea, Torregarai gaineratzen du umoreak min handia egin dezakeela norbait zapaltzeko erabiltzen bada. “Umorea erabiltzerakoan beti galdetu behar diogu gure buruari ea egiten ari naizen hori zein botere harremanetan kokatzen den: nire parekoari egiten ari naiz, ni baino ahulagoa den norbaiti ari naiz egiten edo nire gainetik dagoen norbaiti? Erantzun horrek esango digu erabiltzen ari naizen umorea beste norbait beheratzeko den ala ez”.



## Barretartia Umore Zerbitzuak

### Harremanetarako

- Idoia Torregarai Martija
- 0034 629482474
- [info@barretartia.eus](mailto:info@barretartia.eus)
- [www.barretartia.eus](http://www.barretartia.eus)


### Hezkuntza arloko eskaintza

- Irakasleentzat formazio-saioak
- Ikasle nahiz irakasleentzat umorezko ikuskizunak



# ATZEKO ATETIK

---



## ETIKETA

ARITZ MENDIOLA AKTOREA ETA ABESLARIA

**K**laseak paretako erlojuari begira ematen dituen horietakoa izan naiz beti. “Aritz, zenbat da  $8 \times 4$ ?” galdetzen zidatenerako nik hainbat dragoi akabatuta nituen. Baina, dirudieenez, irakasleei ez die grazi askorik egiten matematikako klaseak leihotik begira pasatzen dituen ikasle batek. Ez zen denbora asko pasa “alfer” etiketa jarri zidatenera arte. Koitaduak nire aita eta ama, hori entzutera derrigortu zituztenean... “zuen semea alfer hutsa da! Ez du sekula lanik eginda ekartzten eta beti dabil leihotik begira!”. Andereño, ulertzazu, askoz ere interesgarriagoak ziren lainoetan aurkitu ahal nituen sorgin edo robot erraldoi edo superheroi haiek matematikak baino.

Handik aurrera nire “alfer” etiketa garatzen joan zen eta ikaskideek ere parte hartu zuten, eta handik atera ziren “maricon” delakoa edo “friki”, azken hori gehiago gustatzen zitzaidan. Beste batzuek nahiago zuten nire fisikoari erreparatuz definitzea eta “dumbo” edo “orejon” deitzen hasi zitzaizkidan. Ez dakit zergatik, baina beti erdaraz definitzen ninduten.

Nire ikastolako oroitzapena beti izan da mikatza. Biraoak gutxieneko bihurtu ziren, ez naute inoiz jipoitu, baina bai umildu, bai publikoki eta bai pribatuan. Eta oso serio diot ez dagoela munduan ume batentzat gauza okerragorik. Orduan ikasi nuen ezberdina izatea gaizki zegoela, futboleant aritu behar nintzela, neskak bakarrik

gustatu behar zitzaizkidalda eta zure lagunekin “frikikerietara” jolastea ez zela batere produktiboa.

Amerikako Estatu Batuetan Detroiten urtebete pasa eta gero ikusten nuen “alferraren” etiketa kendu ezinik nenbilela, nahiz eta besteak jada kendu nituen, eta ezin izan nuen kendu Batxilergora heldu nintzenera arte. Batxilergoan hasi nintzen maite nuen hartan lan egiten eta erakutsi nuen benetan “alferra” etiketa hutsa zela.

Orduan, gazte, hau irakurtzen bazabiltza, jarraitu leihotik begira eta jarraitu ametsetan, ez dezala inork esan alferra zarenik ezta tontotuta zaudenik ere. Nik diotsut noizbait etorriko zaizula hori aldatzeko aukera eta.

# "ELS CARRERS SERAN SEMPRE NOSTRES"

## kamisetak ARGIAn salgai

Kamiseta hau erosita, 2 euroko ekarpena egingo diozu Kataluniako La Directa herri hedabideari, eta 2 euroko ekarpena ARGIAri, Kataluniako independentzia prozesua epe ertainera ere zorrotz jarraitu ahal izan dezan.



**Informaziorik gabe ez dagoelako demokraziarik,  
kazetaritzan ere sustatu independentzia!**

ESKAERAK

[www.argia.eus/azoka](http://www.argia.eus/azoka) | [azoka@argia.eus](mailto:azoka@argia.eus) | ☎ 943 371 545



## Hik Hasi Udako Topaketa Pedagogikoak

Ekainaren 26an eta 27an LEIOAn

Uztailaren 2an, 3an eta 4an DONOSTIAN

**hh**  
hik hasi

**Oraindik bada IZENA EMATEKO aukera.**

**LEIOAn:**

1. **Pedagogia Sistemikoa** - 2. **Mugak jarri autoestimua zainduz** - 3. **Mindfultyoga** - 4. **Bizitzaren eskola: askatasunerako pedagogia** - 8. **Matematika eskuetara LHn**

**DONOSTIAN:**

11. **Askatasunean hazi, hezi eta bizi** - 13. **Komunikazio Ez Bortitzan sakontze maila**
14. **Dislexia** - 17. **Mindfulness** - 19. **Irakurketa eta idazketa konstruktibista**
20. **Jolasa eta jolas terapeutikoa eskolan** - 22. **Garapen pertsonala irakasleentzat**
22. **Heriotzaren psikopedagogia** - 23. **Antzerki teknikak** - 27. **Adimen Emozionala**
28. **Sirimiri: oinarrizko yoga** - 30. **Yoga eta kontzentrazio teknikak hezkuntzan**

Informazioa eta izena ematea **[www.hikhasi.eus](http://www.hikhasi.eus)** helbidean